

ELKARRIZKETA: JONAN FERNANDEZ • ESPERIENTZIA: JOKO HEURISTIKOA 3  
URTEKO GELAN • EKARPENAK: BAZTANGO TESTIGANTZAK • GALDEIDAZUE:  
NEREA MENDIZABAL • BURDIN HARANA • ATZEKO ATETIK: RAMON AGIRRE

**hh**  
hik hasi

**153**

4 EURO • 2010EKO ABENDUA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**Irrien lagunak kluba**  
Oinarrizko proiektu hezitzailea



# AMAIA LAPITZ

ETA ERREGINA CORRIAREN HILOBIA

**KATIXA AGIRRE**

Abentura eta misterioa,  
neska gaztea baten eskutik.  
Sail berri bateko lehen eleberria

**12-16** urte bitartean

## aitona-amonekin kantari

**IMANOL URBIETA**



## EUSKAL MITOLOGIA HAURRENTZAT

**TXILIKU · J.A. LOPETEGI**

**8-10** urte bitartean



# aurkibidea



**8**  
gaia

## IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Proiektu hezitzailea izan nahi du. Izan ere, Pirritxek, Pupu eta Lore bikiak izan ditu, eta hemendik aurrera pailazoek haur jaioberrien *hezkuntzaz* arduratu beharko dute.



**15**  
elkarrizketa

## JONAN FERNANDEZ

*Pertsona izaten hezi, 8 ikaskuntza* liburua idatzi du. Pertsona, gizakia, elkarbizitza, hezkuntza, heziketa... aipatzen ditu, besteak beste.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## IRRIEN LAGUNAK KLUBA

OINARRIZKO PROIEKTU HEZITZAILEA

**16** elkarrizketa

## JONAN FERNANDEZ

**24** esperientziak

Joko heuristikoa 3 urteko gela batean. Idoia Carricas

**26** ekarpenak

Batzango testigantzak jasotzen, Lekarozko 4. DBHko ikasleen eskutik

**32** galdeidazue

Ez dut zigortu nahi. Zigorren alternatibak?

Nerea Mendizabal

**35** berriak

**40** nora joango gara?

Burdin Harana. Europa osora zabalduetako burdina

**42** Atzeko atetik

Ramon Agirre

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com); Posta Elektronikoa:

[hikhasi@hikhasi.com](mailto:hikhasi@hikhasi.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Lontxo Oihartzabal, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez, Matilde Sainz eta Amaia Vazquez. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZ A.S.A.L. Azaleko eta gai nagusiko irudiak: irrien Lagunak. Elkarrizketako irudiak: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-11-17). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
HIK HASI egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitetz!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararutzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala abendua

## Haize berriak dabiltza haurren hezkuntzan



**Proiektu ausarta eta aberatsa izateaz gain, une interesgarrian dator. Izan ere, krisia edonon eragiten, ezkortasuna hedatzen ari denean, herritarron ilusioa pizteko halako aukera izatea eskertzekoa da.**

Betidanik aipatu izan da haur txikien hezkuntzak duen garrantzia pertsonen garapenean. Txiki-txikitan finkatzen omen da geroaren oinarri sendoa.

Asko hitz egin da, bai. Hitz egin soilik, ez; ugariak baitira egin diren ikerketak eta praktikak arlo horretan. Eta, zientziari so eginez, hainbat baieztapen egin ditzakegu. Euskal Herrian izandako Myrtha Chokler argentinarrek zioen gisan, erabaki egin behar dugu zer-nolako pertsonak nahi ditugun etorkizunean, eta horren arabera jokatu. Bai. Erabaki egin behar dugu, ea aginduei edo esandakoei jarraituko dieten menpeko pertsonak nahi ditugun, edo, bestalde, pertsona autonomoak, bere buruaren jabe direnak, askeak.

Hori erabakita, gure jokaerak era batekoa edo bestekoa izan beharko du; eta, ondorioz, eskaintzen dugun heziketa helburuarekin koherentea. Ildo horretan, azken urteotan, Emmi Pikler asko hedatzen ari da gure artean, bere

pedagogiak eta praktikak haur autonomoagoak sortzen lagun dezakeelakoan. Ekarpen ederra, ilusioz hartu duguna.

Ilusio berberaz hartu dugu "Irrien Laguna Kluba"ren sorrera. Etxetik at abiatua, baina etxeetan eragin nahi duena. Eskolatik kanpo sortua, eta, aldi berean, eskolekin batera jokatzekeo bokazioa duena... Hainbat urtetako historia duten hiru euskal eragilek gorpuztutakoa da "Irrien Laguna" proiektua.

Baina, zergatik hartu du Hik Hasik ilusio handiz proiektua? Helburuetan dioten gisan, hiru esparrutan eragin nahi duelako: etxean (hezitzaile nagusia), eskolan (hezitzaile garrantzitsua), jendartearen (auzoa, aisialdia, eskolaz kanpoko jarduerak, komunikabideak... eragin handia duten hezitzaileak). Izan ere, etxeak bakarrik ezin du, eskolak bakarrik ere ez, eta, jendarteak bere kasa ere ez. Hirurak dira garrantzitsuak eta ona izango da hiru aldean artean heziketaren oinarritzko ildoak adostea.

Horrez gain, parte-hartzea sustatzera omen dator proiektua. Osasunean, ingurumenaren errespetuan, eta gure herriko kulturaren transmisioan laguntzera; zientzia, jakin-mina eta ikerkuntza bezalako hainbat eremu sustatzera.

Elkartasuna eta bizikidetzak dute jomugan... Ederra litzateke hori guztia elkarrekin garatzea, txikitatik, gazte eta helduekin batera, edonon.

Hik Hasiren ustez, proiektu ausarta eta aberatsa izateaz gain, une interesgarrian dator. Izan ere, krisia edonon eragiten ari denean, balioen krisia dagoenean, ezkortasuna hedatzen ari denean... herritarron ilusioa pizteko, pixka bat amesteko eta jendarte hobearen egiten laguntzeko, halako aukera izatea eskertzekoa da.

Horrela bada, gure eskerririk handiena Berria, Elkar eta Katxiporreta pailazo taldeari herritarroi egin diguzuen opariarengatik. Etorkizun oparoa izan dezazuela!

# kronika

**Mendillorriko (Nafarroa) Haur eta Lehen Hezkuntzako bi ikastetxeek (El Lago eta Mendigoiti) DBHko 1. mailako ikasleak hartuko dituzte. DBHko ikastetxeek duten leku falta dela medio, 250 ikasle LHko bi ikastetxe horietan arituko dira datorren ikasturtean. Irakasleen eta gurasoen artean ezinegona sortu du berriak. Izan ere, Mendillorriko institutua 2007an ireki zen 330 ikaslekin, eta, iaz, mila ikasle baino gehiago zituen. Aurreikuspen eskasa izatea leporatu diote Nafar Gobernuak Hezkuntza Departamentuari. Egin aurretik, ikasle kopurua ikusita, aurreikusten zen txikia geratuko zela, eta hala gertatu da. Beste informazio baten arabera, Eunateko (Nafarroa) DBHko ikasleek Hezkuntza Fisikoko 28 eskola ordu daramatzate eskolatik at hartzen, espazio fisikorik ez dutelako ikastetxean.**



## Hezkuntza Berezirako aurrekontuak % 40 egin du behera Nafarroan

Nafarroako Hezkuntza Berezirako aurrekontuak % 40 egin zuen behera iazko ikasturtean. Azken lau urteetan behar berezitarako eskaerak % 126 egin badu gora, diru laguntzak % 5 soilik egin du. Aurrekontuan, 104.107 euro bideratu zituen iaz Nafar Gobernuak, aurreko ikasturtean baino 71.973 euro gutxiago.

Bestalde, 3.300 ikasle baino gehiago ohiko ikastetxetan eskolatzen dira eta 591 zentro berezietan. Diru laguntza jaso zuten ikasleetako % 71k zentro berezi horietan ikasten dute.

Eskaeretan, iazko ikasturtean diru laguntza edo beka eskatu zuten 421 ikasleetatik (287 gizonetzko eta 134 emakumezko) 233k soilik eskuratu zuten nolabaiteko diru laguntza. Izan ere,

azken lau urteetan diru laguntzaren eskaera egin duten ikasleen kopurua bikoiztu egin da.

### Herrikoa gurasoen federazioa

Azken ikasturtean, 54 ikastetxetako 1.700 familiek Herrikoa guraso elkartearen prestakuntza jaso zuten.

Carmen Nietok, elkartearen prestakuntza arduradunak, 120 ikastaro eskaini zituen. Gurasoen parte hartzeak ikasleen ikaste prozesuan duen garrantzia azpimarratzen da, behin eta berriz.

Iaz, arrakasta handiena izan zituzten ikastaroak hauek izan ziren: “Eskola arrakastaren sustapena”, “Nerabezaroa”, “Teknologia berrien erabilera”, “Eskola batzordearen funtzionamendua” eta “Anai-arreben arteko gatazkak”. Harrera ona izan zuten beste hainbat hizaldi ere eskaini zituen: “Eskola jazarpena”, “Gatazken trataera” eta “Sexu heziketa Haur eta Lehen Hezkuntzan”. Horiez gain, “bitartekaritza” gaia lantzeko hiru jardunaldi antolatu zituen Herrikoa elkarteak.

Ikasturte honetarako hiru tailer antolatu dituzte: 1. Eskola ordutegia (jarraikoa ala zatitua?), 2. Oinarritzko kompetentziak, eta, 3. Eskola kontseiluak (zer diren, zein da bere egitekoa...). Ikastaro bat ere eskainiko dute: “Eskola Batzordeen funtzionamendua”.

**"Esadazu, eta ahaztu egingo dut; erakutsidazu, eta gogoratu egingo dut; baina utzidazu parte hartzen, eta ikasi egingo dut"**

## Txinako esaera zaharra



### Eskaerei erantzuteko, haur eskola gehiago behar ditu Bilbok

Bilbon, haur eskolako adinean dauden 7.148 haurretatik 583rentzako lekua soilik dago. Horregatik, demografia datuak hartuta, eskola mapa berritzeko eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. Hau da, Hezkuntza Sailak eskolen mapa demografia eta immigrazioaren datuen arabera berritzatzea "ezinbestekoa" dela deritzote.

Hiriburuan, bestalde, haur eskolen eskasia oso arazo larria dela salatu dute auzo elkarteek. Bilboko Auzo Elkartearen Federazioak esan duenez, "orain arte zegoen kopurua % 70 handitu bada ere azken urteetan, emaitza oso txikia da". Zehazki, Bilbon, adin horretan eskolatzeko dagoen haur kopuruaren % 8,15entzat soilik daude plazak.

Gainera, aurrera begira, inongo

planik ez dagoela salatu dute. Orain, haur eskola pribatuak % 54 dira. Haur eskola publiko gehiago irekitzeari ekiten ez bazaio, indarra galtzen joango dira. Une honetan, hiriburuan, 24 auzo omen daude haur eskolarik gabe. "Jendeak etxe ondoan nahi ditu eskolak eta administrazioak ez baditu egiten, gabezia handia izango da", esan du Auzo Elkartearen Federazioak.

### Txikitatik euskaraz eskolatzeak duen garrantzia

Haur eskolak bizilekutik gertu egoteak garrantzia badu, euskaraz eskolatzeak ere badu. Atzerritarren seme-alabak ugaritzen ari dira eta txikitatik euskaraz aritzea oso garrantzitsua da. Bestela, aurrera jotzen duten heinean, A ereduko lerroak ugaltzen joango dira eta atzerrikoen haurrak bazterkeria jasango dute. Gaur egun, zoritxarrez, A eredua duten ikastetxe asko daude.

Bestalde, Auzo Elkartearen Federazioak bat egin du Zazpikaleetako, Bilbo Zaharreko eta Miribillako gurasoen elkarteak egindako salaketekin: "Eskolen egoerak alarma pizten du, bere ahulezia eta atzerapenagatik. Ezinbestekoa da eskolen mapa berritzatzea". Bilboko Juan Manuel Sanchez Marcos eskolari egin diote aipamena, berritu beharra dagoela iritzita. Bestalde, ikasleentzat leku falta salatu dute; luze gabe "arazoa larriago" izango dela diote.

Frantziako Hezkuntza Ministerioa eskola egutegia eta ordutegia aldatzea aztertzen ari da. Izan ere, duela bi urte lau eguneko astea ezarri zuen eta emaitzak ez omen dira onak.

Ikasturtean zehar dituzten lau atsedeen-oporrak ez dituzte jarri zalantzan. Horiek guztiak mantendu egingo dituzte. Arazoa, asteazkena jai hartzea omen da.

Duela gutxi arte, larunbat goizetan ikastera joaten ziren. Hura kendu zuten eta orduak pilatu egin dituzte, eskola egunetan 6 eskola ordu jarritz.

la ikastordu gehien eskaintzen dituen estatua omen da Frantzia, Europan. Baina, egun gutxi erabiltzen ditu ordu horiek guztiak eskaintzeko.

Zehazki, 914 ikastordu erabiltzen ditu 144 egunetan banatuta.

Europako beste herrialdeekin alderatuz gero, OCDEko batez

bestekoak hauek dira:

769 ikastordu urtean, 184 egunetan banatuak.

# GAIA

## Irrien Lagunak Kluba

*Oinarrizko proiektu hezitzailea*







## Proiektuaren mamia

Hezkuntzaren helburu nagusiak norbanakoaren ahalmenak garatzea eta jendartearen garapen soziala sustatzea baldin badira, mundu globalean ona da eredu orokor adostuak egotea, eta,aldi berean, aniztasuna lantzea. Esaten den gisan, partikularra eta unibertsala, batasuna eta aniztasuna bereiztezinak dira.

Horregatik, herri bakoitzak, duen historiaren, kulturaren eta balioen arabera, mundua ikusteko eta interpretatzeko modu berezia du. Eta horrek sortzen duen aberastasuna, ez da herri horrena soilik, mundu osoarena baizik.

Proiektu hezitzailea izan nahi du. Izan ere, Pirritxek, Pupu eta Lore bikiak izan ditu, eta hemendik aurrera pailazoak haur jaioberrien **hezkuntzaz** arduratu beharko dira. Horretarako, **jendarteari, gurasoei, elkarteei** laguntza eskatuko diete. Pupu eta Lore denon artean hezteko, **Berria** egunkariak, **Katxiporreta** pailazo taldeak eta **Elkar** taldeak, Euskal Herriko haurrak eta haien gurasoak eta hezitzaileak bilduko dituen komunitatea sortu dute: **Irrien Lagunak Kluba**.

Irrien Lagunak Klubak, beraz, ikuspegi hezitzailea izango du, eta bere ardatza Euskal Herriko haur guztien isla izango diren Pupu eta Lore haur jaioberrien heziketa izango da.

### Zein baliotan hezi nahi dituzte haurrak?

- **Euskaratik euskarara.** Gure hizkuntzatik mundua nola ikusten den erakutsi nahi diete eta euskararen normalizazioan eragin nahi dute.

- **Euskal Kultura.** Gure arbasoen ezagutzaren bitartekari izan eta kultura garaikidearen lan berriak ezagutarazi nahi dizkiete, euskal kultura geure hau-

ren eguneroko bizitzan ohikoa bihurtuta.

- **Euskal Herria, Euskal Irria.** Zatiketa administratiboak gaindituz, herri bat garela erakutsi nahi diete. Euskararen Herria, Euskal Irria bihurtuko dute, mundura zabaldu.

- **Mila kolore.** Pentsaera eta molde askotariko jendea onartzen eta aniztasuna balio gisa agertzen ikas dezaten nahi dute. Errespetutik, aniztasuna aberatsa dela erakutsi nahi diete.

- **Bizikidetzaz.** Bizikidetzari buruzko kultura berritzailea sortu nahi dute. Errespetuan eta elkarrizketan oinarritua, eskubide berdintasuna, elkartasuna eta askatasuna sustatu nahi dituzte.

- **Partaidetzaz.** Haurren eta helduen arteko harremana indartu nahi dute. Familiaren, eskolaren eta nahi duten elkarten partaidetzaz sustatzea dute xede.

- **Ekologia.** Natura babestea, iraunkortasuna bermatzea eta baliabideak zentzumenez erabilzea zein garrantzitsua den azaldu nahi diete. Kolore guztien artean berdea zein ederra eta garrantzitsua den ikusaraziko diete.



# G

# Irrien Lagunak Kluba

## Helburuak

Helburu nagusia, Euskal Herriko haurrei eta haien hezkuntza prozesuan bidelagun diren norbanako eta kolektibo guztiei zuzendutako komunikazio proiektu sendoa euskaraz sortzea da. Beraz, haurrak izango dira ardatza, baina gurasoak, hezitzaileak eta jendarteko eragileak kontuan hartuta, haurren hezkuntzaren arduraren jendarte osoarena dela uste baitute. Horrela, hiru esparrutan eragiteko asmo sendoa dute:

### Etxea eta familia

Haurren heziketa kontuan hartuz, gurasoak, aitona-amonak, izaba-osabak... etxea osatzen duten guztientzat baliagarri izatea.

### Ikastetxeak

Ikasleen heziketan irakasleek, hezitzaileek eta hezkuntzako eragileek duten eragina kontuan hartzen dute. Horrela, "Ikastetxe irrizaleen sarea" sortzea da duten asmoetako bat, elkarren arteko komunikazioa indartzeko eta proiektu komunak bideratzeko.


### Jendartea

Instituzioak, aisialdi taldeak, kirol eta kultur elkarteak, komunikabideak... Klubaren balioekin bat egiten duten guztiekin, Irrien Lagunak Kultur Elkarteak sortu nahi dute, denei ahotsa emateko eta gure herriko haurren heziketa prozesuan landu behar den genituzkeen hainbat balioei buruzko hausnarketa sustatzeko.

Hiru esparru horietako taldeei eta eragileei beraien partaidetza eskatuko diete, elkarlanean egin nahi den proiektua baita Irrien Lagunak Kluba.

## Klubak eskainiko duena

**Gerora hainbat asmo baldin baditu ere, hasteko, bi produktu eskainiko ditu: "Irria" aldizkaria eta "Irrien Lagunak" webgunea.**



### IRRIA aldizkaria

Harpidetzaren bidez etxean jasotzeko aukera bultzatu nahi dute, nahiz eta dendetan ere eskuragarri egon. Aldizkariak 5,75 euro balioko du. Urteko harpidetzak, aldiz, 10 zenbaki, 45 euro.

Zer lortu nahi dute:

- Haurrak ondo pasatzea, bakarka nahiz guraso edo hezitzaileekin batera.
- Helburu didaktikoa ere badu. Naturarekin, historiarekin eta osasunarekin harreman zuzena izateko aukera eskaini nahi du aldizkariak.
- Euskal Herria bere zabalean eta bere kontrasteekin ezagutaraziko du eta hainbat balio landu nahi ditu: euskararekiko jarrera aktiboa, bizikidetzaren errespetua, natura, kultura, eta abar.

## Irria aldizkariaren edukia

Orriak	Atalak	Deskribapenak
1	Azala	
2-6	Martinber	Kulturarekin erlazioa duen pertsonaia da.
7-13	Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, ipuina	Hilero, gai bat jorratuko da Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsekin.
14-17	Marikalanbre	Pertsonaiak zientzia gaiak landuko ditu. Elhuyarrek garatuko duen atala.
18-21	Pupu eta Lore	Pupu eta Lore haurrak hezi behar dira. Osasunaren gaineko gaiak landuko dira.
22-25	Filosofo Txikiak	Haurren gaiak gogoetara ekarri nahi dira.
26-29	Largabista eta Mari Motots	Naturaren gaineko gaiak landuko dira, basozainarekin eta Mari Mototsekin.
30-33	Ane Pirata eta Patakona	Gure gizarteko bolondresen lana eta elkartasuna agertuko zaizkie haurrei.
34-35	Errimen Ostadarra	Uxue Alberdik eta Amets Arzallusek, pertsonaia ezagunak aurkeztuko dituzte.
36-44	Publizitatea	



### Irrien Lagunak WEBgunea [irrienlagunak.com/index.php](http://irrienlagunak.com/index.php)

Klubaren ardatza izango da. Bertan parte hartzeko izena eman baino ez da egin behar, gurasoen laguntzaz. Doan da. Sare sozial handia sortzeko asmoa dute, beste sareekin erlazionatuko den sarea. Eta, bost helburu nagusi ditu:

- Irrien Lagunak klubarekin eta bere pertsonaiekin eguneroko harremana izateko aukera eskaintzea.

- Zeharo dinamikoa izanda, haurren elkar-eragiletasuna edo interakzioa bultzatzea eta parte hartzea erraztea.

- Ikus-entzunekoei arreta berezia jartzea, haur txikiei gehien erakartzen dien bitartekoa delako. Hor, klubaren gaineko ekoizpena sustatu nahi dute.

- Klubaren pertsonaiak jendarteratzea. Gaur egun Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek Euskal Herriko haurren artean duten eragina gutxitu gabe, beste pertsonaiak sortu dituzte, Irrien Lagunen unibertso berria osatuz.

- Hasieran haurrei eta ikastetxeei zuzendua egongo bada ere, bigarren fase batean (2011ko martxoa) gurasoei eta elkartei ere lekua egiteko asmoa dute. Proiektu hori, beraiekin elkarlanean garatzeko asmoa dute.

### Irria telebista

Bertan, klubak jarritako bideoak aurkituko dira, baina, ikastetxeek eta lagunek igotakoak ere bai. Printzipioz, hileroko programazio berria jartzen joango dira:

- Azken berriak.
- Irriak non? Haurrekin erlazioa duten ikuskizun, festa, kirol-probak... agertuko dira.
- Hileko probak. Proben panela. Haurren partehartzea bultzatzeko, pertsonaia bakoitzak hileko proba bat ja-

riko die haurrei: animalia baten marrazkia egin, guraso batekin errezeta bat prestatu, argazki bat bidali... eta, ikasturte amaieran, "sariak" banatuko dira.

- Zorion agurrak. Klubeko bazkideak zoriontzeko aukera eskainiko du, bai urtebetetzeetan, bai beste arrazoi bat dela medio. Bertan, zorion postalak egiteko aukera izango dute haurrek.

- Zer egin? atalean gurasoentzako informazioa zabalduko da. Bertan, irteera posibleak agertuko dira, arlotan sailkatuta: natura, festak, ikuskizunak, museoak... Gurasoek ere, beren proposamenak igotzeko aukera izango dute.

- Pertsonaiak. Telebistarekin batera, webaren gune nagusia izango da.

- Denda. Gure produktuak edo eta haurren hezkuntza eta aisialdia uztartzen dituzten kanpokoak

### Merchandisinga

*Merchandisingaren* bidez bi helburu lortu nahi dituzte:

- Kluba eta bere pertsonaiak gizaratzen laguntzeko materialak eta jolasak sortzea.

- Klubaren finantziazioan laguntzea. Proiektuaren diru iturri nagusia izan daiteke *merchandisinga* epe ertainean.

*Merchandisingaren* erabakiak hartzeko halako irizpideak erabiliko dira:

- Erabilgarritasuna: ez dute kontsumismoa sustatu nahi. *Merchandising* artikuluek oinarritzko erabilgarritasuna izan dezaten saiaturiko dira, beharrezkoak diren produktuak soilik eginda.
- Kalitatea/prezioa erlazioa: kalitatezko produktuak egin nahi dituzte, prezio onean.
- Ahal dela, hemen bertan eginak. Hiru irizpideetatik, azkena izaten

ari da betetzen zailena, eta, hala izango dela dirudi, merkatuaren errealitateak *merchandising* ekoizpenak atzerriko (Txina, India...) herrietan ekoiztea behartzen baitu produktu askotan.



Webgunearen sarrera



Motxila eskaintza

# Irrien Lagunak Kluba

## Pertsonaien unibertso berria

**Irrien Lagunak Klubaren hasierako bizkarrezurra Pirritx, Porrotx eta Mari Motots izango badira ere, haiekin batera, piskanaka, pertsonaia berriak elkarbizitzen jarriko dira, eta, guztien artean, unibertso berria osatzen joango dira.**



### Pirritx

Neska bizkorra da, bihurria, jostalaria, baina argia eta zentzuzkoa aldi berean.

Porrotxekin eta Marimototsekin bizitzen dituen abenturatan berak jartzen du zuhurtzia puntua,

batez ere, Porrotx eroegi edo bihurregi ageri denean.

### Porrotx

Pailazo bihurria, umearen ikuspuntua bere egiten duena; umearen begi eta logikarekin jarduten du. Transgresorea da, beraz, beti umearen begiradatik ari denez.

Logikak apurtzen ditu.

Zer dago ondo, zer dago gaizki... beti zalantzak eragin eta zalantzaren bidez argia bilatzen saiatzen da.



### Mari Motots

Neska alaia eta sentibera.

Naturazalea da. Animaliak maite eta babesten ditu, eta natura osoa

ere bai. *Largabistaren* lagun handia da, hura ere naturazale amorratua baita. *Lagun* txakurra ere oso maitea du.



### Pupu eta Lore

Pirritxen ume bikiak dira.

Denon haurrak dira, aldez edo moldez. *Lagun* txakurra dute babesle nagusia.

Pupu mutil alaia da, baina baita bihurria ere.

Lore neska irribarretsua da. Lasaia goa Pupuren aldean.



### Ane pirata eta Patakón

Biek mundu bat osatzen dute. El-

kartasuna eta sufritzen dutenekiko konplizitatea bilatzen dute, desberdintasunen integrazioa.

Biak gaixo daude; gaixotasuna dute bidelagun eta horrekin bizitzen asmatu dute. Baina, aldi berean, horrek halako sentiberatasuna ematen die sufritzen eta bazterkeria pairatzen dutenekiko.



### Lagun

Txakur leial eta bizkorra, oso bere kaskoa. Kaleko txakurra da, bere kasa ibiltzea

gustukoa duena.

Berehala usaintzen du nor den jatorra eta fidatzekoa eta nor ez. Jakin-min handikoa da, eta muturra leku guztietan sartzea gustatzen zaio.

### Marikalanbre eta Maritxinparta

Zientziazaleak.

Marikalanbre neska bizkorra da, txipritzina.

Txikitan kalanbre bat jaso eta ahal-





men magikoen jabe egin zen. Amona Maritxinpartak argituko dizkio guztiak. Zientziatzale amorratuak dira biak. Zientziaren sekretuak ezagutarazten lagunduko diete haurrei.



### Martinber (Martinbertso)

Mutil gaztea, irekia, eta zirikatzailea. Kultura gustukoa du: musika, literatura, bertolaritza, artea... Sormena, oro har, bere alor eta edertasun guztian.

Hizkuntzarekin jolas egitea atsegin du:

hitz-jokoa, asmakizunak,

hitz-hotsak, hitzen musika

### Largabista

Gizon gordina, adinean sartuxea, eta naturazale amorratua. Naturari begira egoten da beti bere largabistarekin.

Gizon jakintsua da, naturaren sekretuak dakizkiena.

Gauzak esplikatzeko eta bere lezioak emateko oso modu xelebre izaten ditu: batzuetan ipuin bat kontatuko dizu, hurrena hitz joko batekin aterako zaizu... baina beti esaten ditu gauza interesgarriak.



## Ikastetxeentzako eskaerak eta eskaintzak

### Klubak ikastetxeei eskatzen diena:

- **Irrien Lagunak** proiektua zabaltzen laguntzea. Euskal Herriko ikastetxe guztietan aldizkariaren harpidetza orriak zabaltzeko bideak erraztea, bereziki, hemendik Eguberrietara sustatuko den kanpainan.

- Ikastetxe gisa **webgunean erregistratzea**, eta ahal duten heinean, eduki egoiak igotzen hastea. Webgunean erregistratzea doan da.

- **Aldizkariaren harpidetza egitea.**

- Proiektuaren balioekin bat egiten den heinean, **bidailagun izatea**: proposamenak bideratu, kezka agertu..., horretarako propio sortuko duten "Ikastetxe irrizaleen sarea"n. Aldizkari harpidetza eta webaren erregistroa egingo duten ikastetxe guztiek osatuko dute "Ikastetxe irrizaleen sarea".

### Klubak ikastetxeei eskainiko diena:

- **Ikastetxeko edukiak webgunera igotzeko aukera.** Era horretan, egiten dituzten jarduerak, Euskal Herri osora hedatu daitezke. Beraz, IRRIEN LAGUNAK WEBa, ikastetxe guztien erakuslelho izatea nahiko lukete. Horretarako, ikastetxe bakoitzak telebista kanal propioa izango luke.

- Irakasleei **bideo ediziorako prestakuntza zehatza** eskaintzea.

- **Aldizkariaren harpidetza merkeagoa** lortzeko aukera. Eta gainera, ikastetxeko gela bakoitzean aldizkaria egon dadin, ale kopuruaren arabera eskaintza berezia egingo dute:

· Ale bat eskatuz gero, urtean 40 euro.

· 2-10 ale bitartean eskatuz gero, urteko harpidetza bakoitzak, 30 euro.

· 10 aletik gora eskatuz gero, urteko harpidetza bakoitzak, 20 euro.

- Klubean sortuko diren **merchandising-eko materialak merkeago lortzea.**

- Antolatuko diren **ikastetxeen arteko ekimenetan parte hartzea**: ekimen zehatzak, festak...

- Klubarekin harremana izango duten **ikuskizunak prezio berezietan kontratatzeko aukera** (txotxongiloak, antzerkiak, klubeko pertsonaia batzuk ikastetxeetara...)

- **Klubeko haur parkea merkeago kontratatzeko aukera**, eta, formatu askotariko guneak sortuko direnez, ikastetxe bakoitzarentzat propio egokitutako programazioa osatzea.

- **Kirol/kultur jardueretarako azpiegitura eskaintzea**: helmugarako arkuak, hesiak...

## ZER DA IRRIEN LAGUNAK KLUBA?

- ✓ Pirritxek bikiak izan ditu, **PUPU ETA LORE**, eta orain pailazoak jaio berrien **hezkuntzaz** ere arduratu beharko dira.
- ✓ Sudur gorriei laguntzeko, **Berris** egunkariak, **Elkar** argitaletxeak eta **Katiporrets** pailazo taldeak sortu duten kluba da Irrien Lagunak. Ateak zabalik ditu klubaren helburuekin bat egiten duten guztientzat.
- ✓ Euskal Herriko haurrak, gurasoak eta hezitzaileak bildu nahi dituen kluba da, Pupu eta Lore guztien artean hezteko. **Ikuspegi hezitzailea** izango du, beraz.
- ✓ Pupu eta Loreri, eta hauekin batera Euskal Herriko haur guztiei, koloretako mundua eraikitzen lagundu nahi die klubak, hainbat balore sustatuz, beti ere **euskara** eta **irria** oinarri hartuta.

## ZER SUSTATUKO DU IRRIEN LAGUNAK KLUBAK ?

- ✓ Euskal Herrian pentsaera, kolore eta kultura ezberdinetako jendea bizi denez, **aniztasuna** balore bezala aldarrikatu nahi du klubak, besteak ezagutzuz eta maitatuz gero aniztasuna aberatsa baita beti.
- ✓ Euskara: euskaratik eta **euskaraz**, euskal kulturako esparruak ezagutaraziko dizkie haurrei.
- ✓ **Bizikidetzari** buruzko kultura berritzailea sortzen lagundu nahi du, errespetuan eta elkarrizketan oinarrituta, oinarritzko baloreak sustatzeko: berdintasuna, errespetua, elkarrizketa, parekidetasuna, elkartasuna, eta askatasuna.
- ✓ Ekologia: **natura** babestea, iraunkortasuna bermatzea, baliabideak zentzumenez erabiltzea, eta kolore guztien artean berdea zein ederra eta garrantzitsua den ikusarazi nahi du.

## NOLA EGIN DAITEKE KLUBEKO KIDE?

- ✓ irrienlagunak.com webgunean izena emanda. Doan, noski.
- ✓ Irria aldizkariaren harpidedun eginda. Edonor harpidetu daiteke, baita ikastetxeak eta elkarteak ere.

## 'IRRIENLAGUNAK.COM' WEBGUNEAN

- ✓ Haurren, gurasoen, eskolaren eta klubaren arteko eguneroko harremana bermatuko du.
- ✓ Klubaren eta klubeko kide guztien webgunea da. Etengabe eguneratuko da, eta hainbat atal izango ditu: irria telebista, pertsonaiak, aldizkaria, zer egin, agenda, zorion agurrak, kide bakoitzaren txokoa eta askoz gehiago!



irrienlagunak.com



# IRRiA

aldizkaria

## IRRIA ALDIZKARIA

- ✓ Klubaren aldizkaria da. Hilean behin argitaratuko da, eta 44 orrialde izango ditu.
- ✓ Klubeko pertsonaien abenturak, haurrentzako jokoak, bertsolaritzarekin lotutako kontuak eta beste hainbat atal izango ditu.
- ✓ Kioskoan salduko da, 5,75 euroan.

## HARPIDEDUNEN ABANTAILAK:

- ✓ Harpidedunek, etxean jasoko dituzte 10 zenbakiak, urtean 45 euro ordainduta.
- ✓ Harpidedunek hainbat abantaila izango dituzte klubaren produktuetan, pailazoan ikuskizunetan eta beste hainbat eskaintzatan.



## IRRIA ALDIZKARIA HARPIDETZA ORRIA

'Irria' aldizkaria Irrien Lagunak klubaren aldizkaria da. Puntako marrazkilariek, idazleek eta bertsolariek sortutako irudiz, testuz eta edukiz osatuta dago. Klubeko pertsonaien abenturak, jokoak eta baloreak era dibertigarri eta hezitzaile batean azaltzen ditu, klubeko kide diren haurren, ikastetxeen eta elkarteen parte hartzea bermatuz. Aldizkariaren harpidetza eginda, zuzenean klubeko kide bihurtuko zara eta hainbat abantaila izango dituzu, Irrien Lagunak klubeko txartela jasotzearekin batera.

[www.irrienlagunak.com](http://www.irrienlagunak.com) webgunean aurkituko duzu informazio gehiago. Bertatik ere egin dezakezu harpidetza.

### BAI, ALDIZKARIA JASO NAHI DUT

IZENA:

ABIZENA:

ABIZENA2:

HELBIDEA:

POSTA KODEA:

HERRIA:

HERRIALDEA:

TELEFONOA:

POSTA ELEKTRONIKOA:

Harpidetza orri hau moztu eta bidali  
sobre batean sartuta ondorengo helbide  
honetara:

Irria aldizkaria  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain (EH)

Zure familiako beste partaideren bat Irrien Lagunak Klubaren Kide egin nahi baduzu edo eta bankuko datuak telefonoz eman nahi badituzu markatu kutxa hau eta zuk adierazitako telefonora dei egingo dizugu Irrien Lagunak bezero arretatik.

Bezeroarentzako arreta zenbakia : 902 82 08 06 Astegunetan 8.30-19.30 / Larunbatetan 9.00-13-00

### HARPIDETZA: URTEAN 10 ZENBAKI = 57,50 € 45 € (%22ko deskontua)

ORDAINTZEKO MODUA: BANKU BIDEZ  BANKETXEA:

KONTUAREN JABEA:  NAN:  SINADURA ETA DATA:

ZENBAKIA:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, beterik, jakinarazten dizugu lagatuko Datu Pertsonalak fitxategi automatizatu batera gehituak izango direla. Fitxategi honen titulartasuna Irrien Lagunak s.l.-rena da eta Irrien Lagunak s.l.-k editatu, argitaratu eta banatzen duen Irria Aldizkariaren harpidetzaren kudeaketarako bai eta harpideduna Irrien Lagunak Klubaren Kide egin eta Klubeko txartela kudeatzeko erabiliko direla jakinarazten zaizu datu lagatzailea zaren heinean. Nolanahi izango dituzu sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkartzatza eskubideak, arazuz ezartzen denari jarraituz posta arruntaren bidez Irrien Lagunak s.l., Martin Ugalde Kultur Parkea, 20.140 Andoain (EH) edo posta elektronikoaren bidez helbide honetara harpidetza@irrienlagunak.com mezua bidalita.

IRRIARI baimena ematen diot harpidetza kuota  
(45 euro) nire kontutik kobratzeko.

# jonan fernandez

## *ELKARRIZKETA*

Baketik-eko zuzendaria

“Bizitza eta elkarbizitza jorratzeko erreminta kaxa bat eskaintzen dugu”





“Seme-alabei edo ikasleei zerbait morala edo etikoa erakutsi nahi diegunean, agindua edo irakaspena beharrezkoa da, baina ez nahikoa. Horregatik, bizipen ikaskuntza batzuk bilatu behar ditugu gauzak norberak frogatzeko, norberak esperimentatzeko, berdin du 8 edo 14 urte eduki

”

Bizitzan ikasi duen guztia esperientziaren bidez ikasi duela dio Jonan Fernandezek. Liburuetan irakurritakotik ere jaso duela, baina ikaskuntza nagusiak esperientziaren bitartez bereganatu dituela. Nahiko autodidakta izan dela dio. 16 urterekin institutua utzi, motxila hartu eta hor abiatu zen. 20 urterekin itzuli egin zen berriro, egonkortu eta lanean hasi. Leitzarango autobidearen negoziazioetan ibili zen, gero Elkarrin eta, orain, Baketik-en.

**Baketik Arantzazuko Bake Zentroan** dihardu eta beste hainbat egitekoren artean *Pertsona izaten hezi, 8 ikaskuntza* liburua idatzi du. *Pertsona*, gizakia, elkarbizitza, hezkuntza, heziketa... aipatzen ditu, besteak beste. Bizikidetzatza ulertzeko beste modu bat, beste ekarpen bat, hainbat ikastetxe praktikan jartzen ari direna, eta elkarrizketa honetan zehar azaltzen diguna.



### Zer da Baketik?

Baketik, Arantzazun (Oñati) 2006ko urriaren 14an sortu zen Bake Zentroa da. Egitasmo honen bultzatzaileak Arantzazuko Santutegiko frantziskotarrak izan ziren, eta euren erabakiz zentroa laikoa, akonfesionala eta bere funtzionamenduan aniztuna eta irekia da.

Izenak dioen moduan, bi kontzeptu lotzen dira: bakea eta etika. Eta horren atzean intuizio bat dago: etikaren eta bakearen arteko loturak bizitzarako, elkarbizitzarako, hezkuntzarako eta elkartasunerako pista bat eman dezakeela. Hori da intuizioa eta horrekin hasi ginen lanean. Gure esperientzian hori horrela dela frogatzen ari gara, alegia, bi elementu horiek oso emankorrak, oso aberatsak direla.

### Zein da Baketik-en zeregina?

Guretzat, une honetan, lau arlo dira ardatzak: pertsona, elkarbizitza, hezkuntza eta elkartasuna. Horietan, ekarpenak egitea da gure zeregina. Horretarako, hainbat egitasmo ditugu esku artean:

- Gatazkei etikoki aurre egiteko ikastaroen proiektua: geurekin edo besteekin hobeto bizitzen ikasteko ikastaroak dira, etika oinarritzat harturik arlo pertsonalean, sozialean eta politikoan. 2006ko urritik ia 6.000 lagunek hartu dute parte.

- Antzerki Forum proiektua: egunero, astelehenetik ostiralera, ikastetxeetatik etortzen dira gaztetxoak antzerki foruma egitera. Antzerkiaren bitartez hiru proiektu lantzen ditugu, hiruhileko bakoitzean bat: 8-12 urtekoekin bullyinga eta bortxakeriaren prebentzioa; 12-14 urtekoekin errespetua eta berdintasuna harreman afektiboetan; eta 14-

16 urtekoekin berdintasuna eta errespetua desberdintasunen aurrean. Orain arte 16.000 gaztetxo pasatu dira.

- Kulturarteko eta erlijioarteko elkarguneak: Euskal Herrian ez, baina munduan eztabaida garrantzitsu bat dago; zein den elkargune etikoa kultura eta erlijio desberdinen artean. Guri gai hori asko gustatzen zaigu eta eztabaida horretan sartuta gaude. Ekarpenen bat egin dugu.

- Bideoteka proiektua: 200 film dauzkagu bazkideen eskura, bakoitza bere gida didaktikoarekin. Zinemaren bitartez, besteak beste, bizikidetzari, giza eskubideei, gizarteari eta bizitzari buruz gogoeta egiten dugu.

- Udaberrian, gogoeta etikorako jardunaldiak antolatzen ditugu.

- Arantzazu Afrikarekiko elkargune proiektua: urtean behin, Arantzazun, Afrikari buruzko astea antolatzen dugu.

- Dohain proiektua: gizartean baztertuta dauden zenbait pertsona (gaixoak, presoak, drogaren menpekoak, babesik gabeko adin txikikoak, urritasunen bat dutenak...) hiru egun pasatzera etortzen dira Arantzazura. Dena doan izaten dute eta deskantsatu, ondo pasatu, zerbait ikasi... egiten dute.

- "Izeba" proiektua: Gipuzkoan garatzen ari garen proiektu bat da. Adingabe atzeritarrentzat familia boluntarioak bilatzen ditugu, izeba-osaben papera betetzeko eta integratzen laguntzeko.

- Izan Hezkuntza Proposamena.

- Eta hitzaldiak, jardunaldiak, foroak, argitalpenak...

### **Izan Hezkuntza Proposamena da Pertsona izaten hezi, 8 ikaskuntza liburuan aipatzen duzuna eta ikasturte honetan hainbat ikastetxetan martxan jarri duzuen. Zer proposamen mota da?**

Bizitzako eta elkarbizitzako hezkuntza jorratzeko erreminta kaxa bat da. Kaxa horrek zortzi atal ditu, bakoitza ikaskuntza desberdin batekin eta horiek lantzeko erremintekin.

Erreminta kaxa horrekin bi gauza lortu nahi ditugu. Bata, eguneroko bizi-



tzan, eskolan, familian, kalean... sortzen diren arazoei ikuspegi konstruktibo eta gizatiarrekin aurre egitea. Eta bestea, helburu handiak zehatz-mehatz garatzea. Alegia, eskolan landu nahi ditugun elkartasuna, elkarriketa, berdintasuna, giza duintasuna... eta horrelako helburu nobleak norberak bizitzea eta esperimentatzea.

### **Erreminta kaxa horren beharrean al gaude?**

Baietz uste dugu. Izan ere, bai eskola eta bai irakasleak egoera berezi batean daudela uste dugu. Alde batetik, gizarteak eskaera pila bat egiten dio: eskolak eman behar dio erantzuna elkartasunari, berdintasunari, justiziarri, sexologiari, elikadurari... Eskolak guztiorri erantzun behar dio eta, horretarako, gela bakoitzean, asko jota astean pare bat ordu izaten dira.

Hori gutxi ez, eta, Hezkuntza Sailak, fundazio bakoitzak, GKE bakoitzak... bere unitate didaktikoak eta bere karpetak ematen dizkio eskolari: "Nirea egiteko, tori hau", "nirea egiteko, tori hau", "Emakumeenganako errespetua garatzeko, tori hau", "Nazioarteko elkartasuna garatzeko, tori hau"... Orduan, zer da irakasle batek mahai gainean daukana? Eskaera pila bat, oso ordu gutxi eta bitarteko desordenatu pila bat. Hori deskalabru bat da.

Horregatik eskaintzen dugu erreminta kaxa hau. Zer aurki daiteke hor? Erreminta ordenatu batzuk horri guztiori erantzun erraza emateko. Zeren proposamen honen ezaugarri bat horixe da: erreminta horiek erabiltzeko meto-

doa oso erraza eta errealista dela, jakinik, eskola batean, zenbat ordu libre dauden eta zer aukera dauden hori lantzeko. Bitarteko erraz batzuekin eta ikuspegi errealekin aukera asko ematea da xedea.

### **Ez al da, beste unitateekin batera, beste bat gehiago izango?**

Bai, izan daiteke, baina proposamenaren helburua honako hau esatea da: hemen, zortzi kaxa hauetan, dena sar daiteke. Kanpotik emakumeen bortxakeriari aurre egiteko eskaera bat datorrela, bada, hori erraz asko sar daiteke enpatiaren kaxan edo giza duintasunaren kaxan. Eta gainerako eskaera guztiekin gauza bera egin daiteke.

### **Beste berezitasunik ba al du?**

Bai, hezkuntzan dagoen lehen arazoa aipatutako bat-bateko desordena hori da. Baina bada beste bigarren arazo bat ere: didaktika. Ez irakasleen didaktika soilik, baita gurasoena ere. Oso aginduzko didaktika da. Adibidez, denok ados gaude elkarriketa bultzatu behar dela esatean; elkarriketa ona dela diogu. Eta, orduan, zer da egiten duguna? Bada, gaztetxoei esaten diegu gauzak inposaketaren bitartez egin beharrean elkarriketaren bitartez egiteko. Eta hori zer da? Guk helduok gaztetxoei ematen diegun irakaspen bat. Gaztetxoek "zergatik?" galde diezagukete. "Zuk esan duzulako? Nik nola egiazta dezaket hori horrela dela?". Eta, gainera, arazoi eduki dezakete. Zeren telebista pixka bat ikusten baldin badute edo munduari pixka bat begiratzen baldin badio-

“Gure joera epaitzea eta etiketak jartzea izan ohi da. Gure proposamena etiketarik ez jartzeko estrategia bat da, etiketa saihesteko estrategia bat. Zeren etiketa kondena bat baita eta gauzak epaiaren zain uzten baititu. Behin etiketa jarrita, kendu arte ez dago zereginik”

te, ohartuko dira batzuek ezetz esaten dutela, onena ez dela elkarriketa, inposizioaren bidez lortzen direla gauzak.

Orduan, guk esaten dugu seme-ala-bei edo ikasleei zerbait morala edo etikoa erakutsi nahi diegunean, agindua edo irakaspena beharrezkoa dela, baina ez nahikoa. Horregatik, bizipen ikaskuntza batzuk bilatu behar ditugu gauzak norberak frogatzeko, norberak esperimentatzeko, berdin du 8 edo 14 urte eduki.

Izan Proposameneko 8 kaxa horietako erremintek ezaugarri hori dute: esperientziak sorrarazten dituzte. Eta esperientzia horien bidez froga dezake norberak gizakion bidea elkarriketa, berdintasuna, elkartasuna... direla. Zergatik defendatu eta praktikatu behar diren ulertuko du esperientzia bizitzen badu.

**Ikus dezagun erreminta kaxa barrutik. Zortzi atal daudela esan duzu, eta bakoitzean ikaskuntza bat.**

Lehenengo ikaskuntza zera da: gizakiok mugatuak garela, gizakion izaera mugatua dela. Eta hori da benetako gakoa. Pertsona guztiak behin soilik bizi gara, inperfektuak gara, ez dakigu dena eta ez gara ahalguztidunak. Eta neure muga horiek besteak hobeto ulertzen laguntzen didate.

Bigarren ikaskuntza esker onarena da: mugatuak gara, bai, baina gainditzeko ahalmena eta sortzeko gaitasun mugagabea ere badugu. Dohainez inguratutik bizi gara eta gainditzen gaituzten opari horiek merezi dute gure esker oneko adierazpen kontzientea. Ez badugu baloratzen eta aitortzen gure barruan daukaguna, inguruan daukaguna eta besteek daukatena, oso zaila da bizitzea eta elkarbizitza ona edukitzea.

Kontzientziari entzuten ikastea da hirugarren ikaskuntza: denok daukagu kontzientzia eta zerbaitetarako daukagu. Ez zaio garrantzirik ematen, baina etikoki funtzionatzeko behar-beharrezkoa da, oinarritzkoa da kontzientziari entzutea. Ikas daiteke kontzien-

tziari hobeto entzuten eta hori da planteatzen dena.

Laugarren ikaskuntza giza duintasunarena da: giza eskubide guztien oinarrian giza duintasuna dago, eta hezkuntzan daukan baino garrantzi handiagoa eduki behar du. Giza duintasuna ez da irakaskuntza teoriko hutsa soilik, baizik eta esperientzia bat: nik neure giza duintasuna sentitzea, besteen giza duintasuna ulertzeko.

Horiek dira oinarritzko lau ikaskuntzak. Gero, beste hiru daude, instrumentalak.

**Zein dira ikaskuntza instrumentalak?**

Elkarriketaren plusa, enpatiaren plusa eta pazientiaren plusa.

**Zergatik plusa?**

Konbentzituta gaudelako minusa hedatu dela gizartean, gure buruetan, hezkuntzan... toki guztietan: elkarriketaren minusa, enpatiaren minusa eta pazientiaren minusa. Elkarriketaren kasuan, adibidez, hobeto komunikatzeko, norberaren helburuak lortzeko... metodologia bat dela pentsatzen da. Hori oso hedatua dago eta elkarriketaren minusa dela esaten dugu. Komunikazio metodologia bat baino zerbait gehiago da elkarriketa: egia zerbaiturako bereizketa partekatua. Edo zergatik elkarriketatu behar da? Hori azaltzea zailagoa da, baina elkarriketak bestearengan konfiantza apur bat jartzea dakar, bestela ez dago elkarriketarik. Orduan, nik zu baloratzen bazaitut, zuregan gauza positiboak eta eskertzekoak egon daitezkeela aitortzen badut, errazagoa da elkarriketa.

Gauza bera enpatiarekin. Zer da enpatia? Bestearen tokian jartzea. Buruz dakigu. Eta hori enpatiaren minusa da. Bestearen lekuan jartzeko teknika bat erabiltzen ikastea baino zerbait gehiago da enpatia: besteez kezkatzea eta arduratzea da, besteen sufrimendua geurea balitz bezala sentitzea, nolabait, sufrimenduaren eragileei ekiteko. Berezko gaitasuna dugu enpatia eta gara dezakegu.

Eta, azkenik, hiru ikaskuntza instrumental horiez gain, denak biribiltzen dituen eta proposamen guztiaren oinarria den ikaskuntza bat dago: maitasunarena.

### **Zer ulertzen duzue maitasunaren ikaskuntza esatean?**

Maitasuna funtsezko giltzarria da pertsona izaten ikasteko eta hezteko, prozesu horren sustrai eta fruitu da. Maitasuna gu besteei doan eskaintzeko bultzak eman digun dohaina da. Ahalik eta onik handiena egitea xede duen entregatze desinteresatuaren jabe egiten gaitu. Maitasuna sentimendua baino zerbait gehiago da: bihotza zabaltzeko esperientzia da. Maitasuna ez da maite dugunaz jabetzea; doakotasun esperientzia da. Maitasuna ez da hegoak ebakitzea, maite dugun horri hegoak ematea baizik. Maitasuna da ohartzea gizakion gailurra besteei ahalik eta onik handiena egitea dela, dohainik.

### **Zortzi ikaskuntza horiek esperientziaren bidez ikastea proposatzen duzue. Nola egiten duzue hori?**

Izan Hezkuntza Proposamenak alderdi teoriko bat dauka eta hori liburuan jasota dago. Ikaskuntza bakoitzak arlo kontzeptual eta teoriko bat dauka eta irakasleek irakurri eta esperimentatu egin behar dute hor proposatzen dena. Zeren ezin baita erakutsi gizakion izaera mugatuaren esperientzia edo eske onaren esperientzia neurri batean norberak bizitzen ez badu. Horregatik, lehen pausoa irakasleok proposatzen ditugun zortzi ikaskuntza horiek bizitzea da. Hori da lehen zatia.

Bigarren zatia proposamenaren alderdi praktikoa da, eta ikasleekin egin beharrekoa zehazten da. [www.izan-proposamena.org](http://www.izan-proposamena.org) web orrian bilduta dago, eta zortzi ikaskuntzekin egindako mapa batean agertzen da maila bakoitzean zer landu daitekeen. Oinarrizko lau ikaskuntzak LH 2an, LH 5ean, DBH 2an eta Batxilergoko 1. mailan lantzen dira. Eta hiru ikaskuntza instrumentalak eta maitasunaren ikaskuntza

beste mailetan: LH 3, LH 6, DBH 3 eta Batxilergoko 2. mailan. Bakoitzean proposamenaren helburuak, abiapuntua, zer kontzeptu landu nahi diren eta 6-8 jarduera praktikoa zehazten dira. Eta jarduera praktikoa guztiek ezaugarri bat daukate: egiteko oso errazak direla.

Orduan, hasteko, lehen jarduna beti gaiari kanpotik begiratzea izaten da: film baten, ipuin baten, testigantza baten... bitartez ikustea. Bigarren jarduna hori gure barnera eramatea izaten da eta galdeketa baten edo lan pertsonalaren bitartez egiten da. Adibidez, norberak bere koadernoan bi galderari erantzutea proposatzen da. Esate baterako, empatiaren ikaskuntzan, galdera hau izan daiteke: zer egiten dut nik dohainik? Azkenik, hirugarren pausoa lana partekatzeko izaten da.

Beste adibide bat emate aldera, gizakion izaera mugatua lantzeko eta bizitzeko, aurrena ipuin baten bidez istorio bat azaltzen dugu, haurrek ikus dezaten denok dauzkagula gauza onak eta txarrak. Ondoren, bakoitzak galdera honi erantzuten dio: zuk zeure barruan daukazunetik zer da gustatzen zaizuna? Eta, azkenik, denon artean komentatu egiten dugu.

Esker onaren ikaskuntzan, adibidez, film bat ikusi ondoren, zerrenda bat egiteko eskatzen zaie, norberak bere barruan, inguruan, etxean... dituen gauza onak idazteko. Behin hori ikusi eta gero, hori zer ona den ohartzen eta eskertzen ikasten dute.

Guztira, 250 iradokizun daude, adinaren arabera egokituak Lehen Hezkuntzatik Batxilergora arte. Beti hiru pausoa horiek egiten dira eta ariketak oso errazak dira. Helburua esperimentatzea da.

### **Orduan, esperientziaren bitartez zortzi ikaskuntza horietaz jabetzen gara, eta horrek "hobeto" bizitzeko balio digu.**

Bai, esperimentatu eta horretaz jabetzea garrantzitsua da. Jo dezagun istripu bat izan duzula, zerbait larria gertatu zaizula bizitzan. Zer egin behar duzu horri aurre egiteko? Ba, aurrena, derri-



gorrean galdu duzuna onartu. Onartzen ez duzun bitartean ez baituzu gaindituko. Beraz, trauma horrekin zerbait galdu duzula eta hori onartzea da lehen pausoa. Muga berria onartzea, alegia.

Bigarrena, esker ona. Muga hori daukazu, baina zenbat gauza daukazazu zure inguruan gozatzeko, eskertzeko, baloratzeko... Hori egiten ez baduzu, ez zara zoriontsu izango.

Eta hirugarrena: hori gertatu zait eta nik bizitzan erabakiak hartu behar ditut, bide bat hartu behar dut, biktimismoa ere tentagarria da... Orduan, nola hartu erabaki onak kontzientziari entzun gabe? Zure lekua berreskuratu behar baduzu familian, lantokian, gizartean, lagunaren artean, herrian... giza duintasuna daukazula gogoratu behar duzu. Duintasuna daukazu eta horrek argitzen dizu non dagoen zure tokia.

### **Demagun bi pertsonen artean gatazka bat sortu dela. Nola agertzen dira hor ikaskuntza horiek? Nola bideratzen da horrelako egoera bat?**

Normalean, norbaitekin gatazka bat baldin badaukat, berehala hasten naiz esaten kabroi bat dela, gezurti bat dela eta nahi duen bakarra berearekin ateratzea dela. Zer egin dut? Etiketa bat jarri: gezurti bat da, berekoia da, prota-

“ Horixe da publizitatea, gizartearen zerbait materiala eduki behar dut, oraindik ez daukadana, zoriontsua izateko. Eta etengabeko antsietate horretan gaude. Gure planteamendua guztiz kontrakoa da. Hobeto bizi daiteke. Pixka bat hobeto, edo aldi bakoitzean pixka bat hobeto. Bide horretan murgildu behar dugu, bestela, itxaropen faltsuak sortzen dira eta lehenago edo geroago lehertu egiten gara ”

gonismoa nahi du... Orduan, etiketa jartzen badiot eta horren arabera hartzen baldin badut jarrera bat, akabo. Zeren berak ere gauza bera egingo baitu. Niri beste etiketa bat jarriko dit. Eta hor ez dago elkarriketarik, etiketa horiek dena baldintzatzen dutelako.

Beraz, zer planteatzen dugu? Gaztazka egoera bat baldin badago, elaboreazio marko bat behar da. Aurrena, ez dezagun ahaztu ni mugatua naizela eta bera ere bai. Horrek dena baldintzatuko du.

Bigarrena: adostasuna badago, baina non dago puntu komuna, elementu positiboak, berak zer dauka ona, nik zer daukat ona, zertan ez daukat nik arrazoi guztia, zertan dauka berak arrazoi pixka bat...

Hirugarren urratsa: etikoki zer egin behar dugu egoera horretan, deskalkifikatzen jarraitu ala dauzkagun gauza komunak bilatu?

#### **Horrelako egoeretan asko hitz egiten da enpatiaz.**

Gure joera epaitzea eta etiketa jartzea izan ohi da. Eta hori da liburuan eta gure planteamendu guztietan esaten duguna: etiketaren kontrako prozesu bat proposatzen dugu. Zeren etiketa kondena baita eta gauzak epaiaren zain uzten baititu. Behin etiketa jarrita, kendu arte ez dago zereginik. Horregatik, proposamena etiketarik ez jartzeko estrategia bat da, etiketa saihesteko estrategia bat.

#### **Zenbat denbora behar da izan Proposamena lantzeko?**

Gela batean irakasle batek horrelako gauzak egiteko, gutxi gorabehera, astean ordubete eduki dezakeela kalkulaten da. Orduan, proposamen horrek ez ditu ikasturte bateko ordu guztiak betetzen. Esate baterako, LH2an gizakiaren izaera mugatuaren ikaskuntza lantzeko 4 ordutan egin daitezkeen 6-8 jarduera proposatzen dira. Beraz, gainerako orduak beste gai batzuk lantzeko erabil daitezke. Helburua ez da proposamen horrekin ordu guztiak betetzea, baizik eta denbora uztea beste gai



batzuk lantzeko eta horiekin lotzeko.

#### **Zenbat ikastetxe ari dira izan Proposamenean parte hartzen?**

2010eko martxoan aurkeztu genuen proposamena Arantzazun. Lehen ikastaroa maiatzean egin genuen eta 85 pertsona etorri ziren, denak irakasleak. Ikasturte honetan 10 irakasle interesdun eta bi edo hiru ikastetxe edukitzea nahikoa zela pentsatzen genuen, eta interesa askoz handiagoa dela ikusi dugu. Jadanik 4 ikastetxek egin zuten ikastaroa irailean eta beste 11k eskaera egina daukate. Une honetan, proposameneren inguruan, gutxi gorabehera, 30 zentro dabilta.

Ikastetxe batetik deitzen baldin badigute proposamena aurkezteko eta ikastaroak emateko eskatzeko, hala egiten dugu. 10-12 orduko ikastaroak dira. Eta, gero, martxan jartzen dute nahi duten moduan eta ahal duten erritmoan.

Hemen, Arantzazun, egiten ditugun ikastaroetara ere etor daitezke irakasleak beren kabuz.

#### **Irailean hasita, oraindik goiz izan daiteke ebaluazio bat egiteko. Baina zer-nolako erantzuna edo harrera izan du orain arte?**

Orain artekoa ikusita, balorazio ona egiten dugu. Alde batetik, irakasleei gustatzen zaiela ikusten dugu, ondo hartzen dute. Pertsonalki ez dute bizi-tzen karga bat bezala eta beraientzat ere ikasteko balio duela ikusten dute.

Bukatutakoan ondorio bat ateratzen dute: ez da zaila hau aurrera eramatea. Eta guretzat hori da garrantzitsuena. Guretzat obsesio bat izan da hori hasieratik. Zeren irakasleak erabat gaituta

baitaude: denbora gutxi, eskaera gehiegi, birtarteko gutxi... Horregatik, egiten denak oso errealista izan behar dut. Eta orain arte egindakoa ikusita, nik uste dut lortu dugula errealista izatea. Mementoz pozik gaude horrekin.

### **Liburuan aipatzen duzu proposamenaren oinarrian “pertsona izaten hezte” dagoela. Zer da “pertsona izatea”?**

Hobetzeko daukagun gaitasuna jorratzea. Kito. Horixe da. Pertsona zer den definitzeko, agian, entziklopedia bat, 10 entziklopedia edo 10 urte behar-ko genituzke. Baina gu beste definizio horrekin gelditu gara: pertsona hobetzeko gaitasuna duen izakia da. Hori da pertsona eta hori da zoriontsua izatea. Zoriontsua zentzu errealista eta arrazoizkoan, hau da, ez publizitatean planteatzen den zoriontasun horretan. Guretzat zoriontasuna ona eta txarra integratzea da, zailtasuna eta erraztasuna bateratzea...

Zoriontasun horrek lotura asko dauka hobetzeko gaitasun horrekin. Alegia, pertsona batek bere bizitzan zehar hobetzeko gaitasuna daukala planteatzen badu, eta gaitasun hori jorratu egin behar duela erabakitzen badu, zoriontasuna bizitzeko aukera gehiago dauka. Horregatik uste dugu definizio horrek garrantzi handia daukala.

### **Nola hezi pertsonak? Eta aurretik, nola hezi geure burua besteak hezteko?**

*Bizizikasi* pedagogiaren bitartez. Aipatutako zortzi ikaskuntza horietatik abiatzen den pedagogia da. Hau da, pertsona batek hobetzeko eta ikasteko behar duen guztia barruan dauka, eta ez da beharrezkoa aditu baten menpe egotea edo ez dakit zer gauza ikastea kanpoan. Gauza garrantzitsuenak edo nagusiak barruan daude. Eta hori deskubritzeko, gure esperientziak ikaskuntza bihurtu behar ditugu.

Edonola ere, kontuz ibili behar dugu. Zeren, alde batetik, gizakia hobetzeko gaitasuna duen izakia dela diogu. Baina, beste aldetik, baita bere burua



engainatzeko gaitasun handia duen izakia ere. Bi elementuak hartu behar dira aintzat. Beti pentsatu behar dugu lehen gatazka, lehen ahalegina, lehen elkarrietzeta, lehen erronka, beti geure buruarekin dugula. Horregatik, geure buruaren eta funtzionamenduaren kontzientzia handiagoa eduki behar dugu. Beti aintzat hartu behar dugu hobetzeko daukagun gaitasuna jorratzeko, auzoengainatzeko daukagun gaitasuna desegin egin behar dugula.

### **Daukagunarekin konformatu beharrean, gizakiok beti gehiago nahi dugu.**

Justu horregatik da lehen ikaskuntza gizakion izaera mugatuarena. Esperientzia guztiak dira garrantzitsuak, baina oinarri-oinarrian dagoena da mugatuak garel. Horrek dena baldintzatzen du, dena, dena: gure tokia munduan, gure lekua bizitzan, gure harremana besteekin, lankideekin, bikotearekin, seme-alabekin... Eta beraiek ere mugatuak dira, mundua ere mugatua da.

Beraz, lehen esperientzia mugatuak garel. Eta, bigarrena, garena eta daukaguna eskertzea, aitortzea eta baliostea. Hori egiten ez badugu, zoriontasuna ezinezkoa da.

### **Gizartearen mezuak, ordea, bestelakoak dira.**

Bai, mezuek dena posible dela diote: zuk hau erosten baldin baduzu, zuk hau botatzen baldin badidazu, zuk hau baldin badaukazu... zoriontsua izango zara, mugarik gabe eta ahaleginik gabe. Itxaropen faltsuak sortzen dira.

Horrez gain, beti desira bultzatzen eta sustatzen da, gehiago edukitzearen desira, kontsumitzearen desira. Kontro-

lik gabeko desira bultzatzen da. Horixe da publizitatea: gizartearen zerbait materiala eduki behar dut, oraindik ez daukadana, zoriontsua izateko. Eta etengabeko antsietate horretan gaude.

Denak dauka abantaila eta desabantaila, baina zentzu horretan, gure aitona-amonak, neurri handi batean, planteamendu proportzionatuagoetan bizi ziren. Ez zeukaten guk daukagun askatasuna eta zeukaten hezkuntza itxia zen. Eta askatasunik gabeko hezkuntza ez da eredu ona. Hori da desabantaila. Abantaila, berriz, bizitzaren proportzioaren neurria nahiko ondo hartuta zeukatela. Nahiko ongi lerrotutako printzipio humanista batzuk zeuden: gauzak txukun egitea, aurrezte, ondokoa ongi tratatzea... Orain, askatasun handia daukagu, baina ez daukagu inongo mugarik eta horrek desabantailak dakartza.

Gure planteamendua guztiz kontra-koa da. Hobeto bizi daiteke. Pixka bat hobeto, edo aldi bakoitzean pixka bat hobeto. Bide horretan murgildu behar dugu, bestela, itxaropen faltsuak sortzen dira eta lehenago edo geroago lehertu egiten gara.

**Konturatu naiz aita gisa eman ditudan aholkuak erreferentzia direla seme-alabentzat, beharrezkoak direla eta mugak ere jarri egin behar direla. Baina benetan esperimendu ondoren ikasten da, eskarmentuarekin. Eta hori oso argi ikusi dut seme-alabekin.**

## Joko heuristikoa 3 urteko gela batean

**Ikasturte hasieran, asmo berriak izaten ditugu. 3 urteko gela batean joko heuristikoa egitea bururatu zitzaigun, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan ibilia zen lagun baten esperientzia interesgarria entzun eta gero. Bibliografia bilatu, gelako ezaugarrietara egokitu, eta hementxe duzue ikasturte bateko esperientzia.**



Idoia Carricas  
Haur Hezkuntzako irakaslea  
MENDIGOITI I.P. (Iruñea)

### Zer da joko heuristikoa?

1970eko hamarkadatik, eta, **Elionor Goldschmied** pedagogoari jarraituta, haur eskola askotan erabili da sistema hori, eta, gaur egun oraindik, (0-3) haur eskoletan erabiltzen da. Goldschmied eta Jackson-en liburuan honako definizio hau ematen da: *“bonetan datza: haur talde bati denbora zehatz batean eta giro kontrolatu batean, era anitzetako objektu eta ontzi asko eskaintzea, haurrek askatasun osoz jolas egin dezaten, helduen esku-bartzetik gabe”*.

Heuristiko hitza grezierazko “heurisko” hitzetik dator, eta aurkitu eta iker-tu esan nahi du hitz horrek. Horiek dira, hain zuzen ere, aurkikuntza eta ikerkuntza, egin behar diren ekintzak ikaskuntza aktiboa sustatu nahi badugu; hots, haurra bera bere kabuz hainbat gauzaz konturatzea.

### Zergatik 3 urterekin?

Goldschmied eta Jackson-en liburua irakurtzerakoan (“La Educación Infantil 0 -3 años”), aurkezten duten ikuspegi irekiak animatu gintuen: *“... ez dago egiteko modu zuzen bat, bainbat lekutan lan egiten duten pertsonak beren ideia propioak izango dituzte... helduen sormena askatzea da sistema horren meritu handienera bat...”*. Agian, 3 urteko haurrekin lan egitea ez da aproposena, baina argi geneukan gure ikasleen artean askok ez zutela halako esperientziarik izan 0-3ko haur eskoletan; beste alde batetik, gure gelako 2 eta 3 urteko haurrei egindako behaketak argi erakutsi zizgun adin horretan haurrek gustukoa dutela askotariko materialak biltzea, manipulatzeko, horiei behatzea...

Horrez gain, **Alsinak** bere liburuan (“*Cómo desarrollar el pensamiento matemático en 0-6 años*”) matemati-

karen arloan egiten duen atal banaketa irakurrita, ikusi genuen joko heuristikoaren bitartez hainbat gaitasun matematiko landu ditzakegula. Hauek izan daitezke **arrazoiketa logiko-matematikoan** landu ahal diren gaitasunak: bete eta hustu, taldekatu, lerroetan jarri, berezitu, konparatu... Zenbakien eta kalkularen kasuan gaitasun hauek landuko dira: kuantifikatzaileak identifikatzea (asko, gutxi, guztiak, baten bat, bat ere ez); oinarriko kuantitatiboak (bat, bi, hiru, lau) eta gehitzeko, kentzeko eta banatzeko nozioak. **Geometrian** lerro zuzenak eta makurtuak; forma itxiak eta irekiak eta forma geometrikoak.

### Antolamendua

Antolamendua garrantzi handikoa denez eta joko adinari egokitu nahian, interesgarria iruditzen zitzaigun **bikoizketak** egitea, are gehiago kontuan izanda taldearen kopurua handia zela. Gure eskolan hori egiteko aukera zegoen. Horrela, astean behin taldea hamaikako bi azpialdetan banatzen genuen, talde erdia euskal jolasak egitera joaten zen, eta beste erdia gelan geratzen zen joko heuristikoa egiteko. Jolas horretan aritzeko, haurrak binaka jarri genituen, izan ere, joko matematikoaz gain, interakzioa ere landu nahi baikenuen. Jolasteko bikoteak beraiek aukeratzen zi-







tuzten. Azpitaldeak, berriz, irakasleak egiten zituen, eta irizpide nagusia heterogeneotasuna kontuan izatea zen (adina, generoa ...).

Bikote bakoitza mahai baten inguruan esertzen zen, eta mahaian **material**ez betetako zapata kutxa bat zuten. Kutxan aurki zitzaketen materialen artean hauek zeuden: zintak, kortxoak, tamaina askotako jogurt edalontziak, puxtariak, erruloak, jateko txinatar makilak, kafegailuko gomak, edateko lastoak, alanbre zatiak, lokarriak, harritxoak, txapak, metro-soka bat, mahuka zatiak, kartoizko zenbakiak... Material bakoitzetik nahikoa zegoen, eta, horrez gain, tamaina askotakoak zeuden. Ikasturtean material hori aberastea beharrezkoa zela ikusita, josteko metro-soka, kartoi mehez egindako zenbakiak eta koloretako kafe kapsulak gehitzea erabaki genuen.

Esperientzia hori lehenengo bi hiru hilekoetan egin genuen. Gero, material ez betetako kutxa matematikako txokoan egokitu genuen, ikasleek nahi zutenean erabiltzeko. Eta halaxe gertatu zen, txokoetan aritzen ginenean behin baino gehiagotan ikusi baikeintuen haurrak materialarekin ikertzen.

## Interakzioa

Bikote bakoitzari kutxa bat eman genion, eta eman genien egiteko bakarra hauxe izan zen: bikote bakoitzak bere materialarekin jolastu behar zuen,

beste bikoteekin trukatu gabe. Esperientziaren lehenengo egunetan bikotekideen artean interakzio gutxi gertatu zen. Kutxan zegoen materiala banatzerakoan gertatu zen interakzio handiena. Batzuetan, bikoteko bi kideek gauza bera nahi zutenean, arazoak gertatzen ziren; edo bikoteko kide batek jarriera pasiboa hartzen zuen, eta besteak uzten zionarekin jolasten zen. Beste batzuetan, ordea, materiala banatu egiten zuten (Unai: *“Uno para tí, este para mí”*; kortxoak banatzen ditu eta soberan geratzen direnak berriro kutxan sartzen ditu. Aimarrek lau txinatar makilatxo hartu zituen eta, gero, bi eman zizkion bere bikotekideari), erdi eta erdi.

Ikasturtea aurrera joan ahala interakzioa gero eta handiagoa zen. Batzuek gero eta gehiago erabiltzen zuten hizkuntza beren arazoak konpontzeko (Oier: *“Me lo dejas”*). Beste bikote batzuek konposizio plastikoak elkarrekin egiten zituzten, saioaren hasieran hartutako materiala konposiziara gehituz eta elkar errespetatuz. Jolas sinbolikoa ere sortzen zen, gehienbat “sukaldeketan” ibiltzerakoan. Eta ikasturte bukatzean beste interakzio mota bat gertatu zen: batak besteari galderak egiten zizkion, zalantzak argitu nahian (Ikusi argazkian. Unai metro-sokan agertzen diren zenbakien izenak galdetzen ari zaio Aimarri).

## Irakaslearen betekizuna

Hasieran, Goldschmied-ek aipatutakoan oinarritu gara gure esperientzia aurrera eramateko: *“helduen esku-hartzerik gabe”*. Eta halakoxea zen gure betekizuna, ikasleak askatasunez jolasten ziren gure esku-hartze zuzenik izan gabe, hala, ikasleen **autonomia** bultzatzeko. Horrek ez du esan nahi irakasleak pasiboa izan behar duenik; badi garrantzi handiko zeregin bat: **behaketa**. Behaketaren bitartez, gure ikasleak hobeto ezagutzen ditugu: norekin elkartzen den jolasteko (iniziatiba hartzen duen edo zain geratzen den); nola jolasten den (jolasa sortzen duen, imitatu egiten duen, zer material erabiltzen

duen, ez den jolasten ...); eta nola erlazionatzen den kideekin, (hizkuntza erabiltzen duen, pasiboa den, gustukoa duen jolasa banatzea...). Gure lanari buruzko hausnarketa egiteko ere erabilgarria da behaketa: materiala eta espazioa egokia den, nola bultzatu partaidetza, sormena eta abar. Ondorioz, beste hainbat erabaki **ebaluatzeko** eta berriz planteatzeko aukera izaten dugu.



## Gaitasun matematikoak eta beste batzuk

Hasieran aipatutako gaitasun matematikoez gain, jolas modu hori lagungarria da gure ikasleekin beste gaitasun batzuk lantzeko. Ekintza irekia denez eta helburutzat interakzioa eta autonomia bultzatzea duenez, gaitasun hauek lantzen ditugu: ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, pertsona gisa garatzen ikastea, egiten eta ekiten ikastea.

Eta jolas modu horrek gaitasunen filosofia eremu guztiak inguratzen dituezen, ez dugu ahaztu nahi irakasle gisa ere beste gaitasun batzuk landu behar ditugula; hau da, lehen esan dugun bezala, sormena eta behaketa, gure ikasleei inguru aberatsena eta probokatzailerena emateko. R. Fernández Muñozen hitzetan: *“Ez aldatzeko dudak eskubideak badu muga bat, nire ikasleek nire baitan dagoen irakasle hobere-na ezagutzeko duten eskubidearen abiapuntua”*. ●

## Bibliografia

- GOLDSCHMIED, E., JACDSON, S.: *“La educación infantil 0-3”*, Morata.
- ALSINA I PASTELLS, A.: *“Cómo desarrollar el pensamiento matemático en 0-6 años”*, Octaedro, 2006.

## Baztango testigantzak jasotzen

### Lekarozko 4. DBHko ikasleen eskutik

**Urteak daramatzate Lekarozko (Nafarroa) 4. DBHko ikasleek Baztango testigantzak jasotzen. Jende helduari egindako ahozko grabaketan bidez, era askotako testigantzak jasotzen dituzte: baztandarraren historiak eta istorioak, ohiturak, euskalkiak...**

Historiako mintegia izan da lanaren koordinatzailea, eta, horren buru ibili da, urtetan, Juainas Paul irakaslea.

#### Gurasoak eta aitona-amonak elkarrizketatzen

DBHko 4. mailako ikasleek ikasturte hasieran plana egiten dute. Elkarrizketak egiten eta datuak jasotzen ikasten dute era teorikoan, eta, metodologia zehatza erabiliz, aukeratutako pertsonak elkarrizketatzera joaten dira, banaka.

Elkarrizketa horiek egiteko, oinarriko galdetegia dago. Urtero, ikasleei galdetzen zaie zer iruditzen zaien, eta denen artean egokitzen dute. Ondoren, ikasle bakoitzak nor elkarrizketatuko duen erabakitzen du eta bere galdetegi propioa antolatzen du.

#### Testigantzak jasotzen

Helburua, gal litezkeen historiak eta istorioak, euskaraz hitz egiteko



Juainas Paul historia irakasle zubietarra.

erak, ipuinak, kontakizunak, ohiturak, toponimia, tresnen izenak eta abar jasotzea da, aurrera begira, ikertzaileek materiala izan dezaten bere lanerako.

Ikasle bakoitzak pertsona heldu bat elkarrizketatzen duenez, ikasturte osoan, belaunaldien arteko harremana indartu egiten da.

#### Gerónimo de Uztariz historia institutuaren laguntza

Lekarozko institutuan urteak daramatzate lanak jasotzen. Ahozkoak diren jasoketak paperera pasa eta sailkatu egiten dira. Proiektu izugarri horrek Iruñeko Gerónimo de Uztariz historia institutuaren babesa du. Bertan, BHko hainbat irakaslek lantaldea sortu dute.

#### Elkarrizketak ikasturte osoan zehar

Elkarrizketak elkarrizketatuen ohiko hizkuntzan egin dira, gehienak euskaraz. Horretarako, galdetegi zehatza erabiltzen da. Ondoren, elkarrizketak paperera pasatzen dira, eta, amaitzeko, beste ikaskideei aurkeztu eta denen artean hitz egiten da.

Testigantzen jasoketak ikasturte osoa irauten du eta egindako lana neurtu egiten da. Hau da, Historia ikasgaiaren zati bat da eta notarako balio du.

Geroko lana, jasotako argazkiak, irudiak, elkarrizketak, idatziak eta abar digitalizatzea eta denen eskura jartzea izango da.

## Ikasleen ikerketa

Ikasleek egindako ikerketak biztanleen eguneroko bizitzan, heziketan, komunikabideetan eta erlijioan oinarritu dira, batez ere. Elkarrizketetan denetarik hitz egin liteke, baina, arreta berezia jartzen da eskola, lana, euskararen egoera, garraioak, jolasak, erlijioa eta abarretan.

Elkarrizketaren teknikak ez du prestakuntza handia eskatzen, egitea oso erraza baita aurretik ongi programatzen bada.

Bestalde, kontakizun askotan oso gauza politak agertzen dira. Ikasleek arreta handia jartzen dute, eta, ardura handiz jokatzeko dute.

## Sentimenduen indarra

Juinas Paulen esanetan, “testigantzek eragin handia dute ikasleen sentimenduetan. Normalean, harritu egiten dira haien aitona-amonek pasatutako egoera latzak ezagutzeko, eta, egoera haiek gertukoek bizi izan dituztela ezagutzeak onurak dakartza, gure ustez”.



*Ilustrazio pribatuak, hainbat aldiz gehiago eta ongi handiagoa izaten zuten. Etxeak argiak Leizorako Inpuzatzen diren, nahi ezin diren argiak izaten dira.*

*Los edificios modernos solo dependen de sus recursos y prestigio. El ejemplo más evidente es el de las copias de Leizor, como puede comprobarse en esta muestra anterior al incendio.*

## ESKOLA - II



## ETXEA eta FAMILIA - I


CASA y FAMILIA - I

*Gerraosteak ez zituen ankera sobera eskaintu. Gurea zela-eta, baina edo nekazari munduak berpizte antzeko bat izan zuen, aiseago lortzen baitzen jateko... Orokorrean, "modernizazio" jarrera motela zela erusten da.*

*La posguerra no ofreció demasiadas posibilidades. Dada la realidad del hambre, se produjo una suerte de renacimiento del mundo rural, donde era más fácil encontrar qué llevarse a la boca... En general, se dice que la tendencia hacia la "modernidad" se ralentizó.*

*Etxea, familia eta uia. Behelak su bat edota "ekonomika" ditzen zirenak erabiltzen ziren sukaldia berotzeko. Egurren edo itatza zen erregai arruntena. Ura eta argi elektrikoa (horiska eta indar aldakorrek) hiri eta herri koskorretan zegoen, zegoen. Baserri edo bi-bordean ez, baina; bertze tresneria partikularrez.*

*La casa, la familia y el fuego. Un fuego bajo o sin que se llamaban "económicas" se empleaban para calentar la cocina. La leña o el carbón eran los combustibles más habituales. El agua y la luz eléctrica (suministrada en los pueblos mayores) se suministraba en los pueblos mayores, cuando la hacían. En los caseríos, no, en*



## Erakusketaren sailkapena

- Etxea eta familia.
- Lana.
- Eskola.
- Euskararen gorabeherak.
- Garraioak.
- Jolasak, lagunak eta besteak.
- Eliza eta erlijioa.
- Kontrabandoa. Mugalariak.
- Frankismoa.
- Baztan. Gerra eta gerra ostean.
- Frankismoaren esklabuak.
- "P lerroa" Baztanen.
- Amerikanoak Baztanen.
- Gerra Zibileko "Tebeoak".
- Makiak.

## Frankismoaren erakusketa

2010eko maiatzean Elizondoko Arizkunenea jauregian frankismoaren gaineko erakusketa antolatu zen.

Izan ere, frankismoak kalte handia egin zuen bailaran; gaur egun, begien bistakoak diren kalteak, oraindik orain. Irakasleen ustez, ikasleek zuzenean ezagutzea egoki izan liteke, gerora, historia errepika ez dadin.

## Ondorioetako batzuk

Jendeak beldurra du eta isiltasuna mantendu nahi du gertatutakoaz eta jasandakoaz. Euskarak izan zuen errepresioa, frankismoaren doktrinamendua, gerren osteko sufrimendua, "makiak"... Izan ere, bailaran, 1936ko Espainiako Gerra Zibilari II. Mundu Ge-

rak jarraitu zion. Jende ugari alde egin zuen mugaren alde batetik bestera, eta, era berean, jende asko aritu zen bai alde batean eta bestean ihes egindako-  
ei laguntza eskaintzen.

## Kasualitatearen onurak

Erakusketa prestatzen ari zirela, patuak hala nahita, Historia mintegian, gai horrekin interesatua zegoen jendearekin egin zuten topo eta prestutasuna agertu zuten laguntzeko, bailarako beste aditu batzuekin batera. Horrela, hainbat arlo aurkezteko aukera izan zen: Mikel Rodriguez (mugaren pasoa-  
ren gainean), Iker Frias (esklabuek egindako gotorlekuak), Fernando Mendiola (Baztan barruko frankismo-  
aren esklabuak), Lander Santamaria



Milaka milaka herritarrek hartu zuten parte 1933. urtean irabazitako Bartzelona 1933ko konstituzioaren eraketan. Dena Bartzelonan, eta oso gutxiak irabazitako konstituzioaren eraketan.

Ez da hori bakarra: 1933ko konstituzioaren eraketan, Bartzelonan, eta oso gutxiak irabazitako konstituzioaren eraketan.



73 urteko N. Bartzelona 1933ko konstituzioaren eraketan.



Errepublikar militarren burua, General Franco, 1939ko irailaren 18an. Errepublikar militarren burua, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

Militarrek Bartzelona hartu zuten 1939ko irailaren 26an. Bartzelona hartu zuten 1939ko irailaren 26an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

# BAZTAN GERRA ETA GERRA OSTEAN

(amerikarrek egindako Gorramendiko gotorlekua), Mikel Ozkoidi eta abar.

## Estraperloa lanbide

Bailarako askorentzat, muga pasatzen laguntzeko berdin zitzaizen pertsonak pasa edo materiala, janaria eta abar. Azken finean, hura zen haien lana. Baina, ez zaie hartaz hitz egitea gustatzen, eta, askotan, isildu egiten dira.

## Bailarako historiagileak

Elizondoren egindako erakusketarako, lan berezia egin zuten bailarako historiagileek frankismoaren garaiko gertaera konkretuak aurkeztuta: makiak, galtzaileek egin behar izan zituzten zigor-lanak II. Mundu Gerrarako bunkerrak eraikitzen...

## Gerrako esklabutza

Gerra Zibileko hainbat errepublikar galtzaile "frankismoaren esklabu" gisa eramanak izan ziren mugako "Plerroa" deritzan bunkerrak eraikitzen.

## Makiak Baztanen

Gerra Zibilaren ondoren Francoren aurka sortutako "makiak" 1944an agertu ziren bailaran. Muga bertan zela, hura pasatzeko, inguruan ezkutatzeko edota komunikabide gisa erabiltzeko joan ziren hara. Dakitenez, 1961. urtera arte behintzat bailaran ibili ziren.

## Amerikarrak Baztanen

Gorramendin gotorlekua egin zuen Ammerikako Estatu Batuetako ejerzitoak eta haiekin gertatutako hainbat pasadizo jasoak daude.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

## MAKIA NAFARROAN - I

### EL MAQUIS EN NAVARRA I

Makiak gerra Zibila bukatu ondoren, dikadura frankistaren kontra arin ziren gudariak dira. Hainbat baitara, autoritarismoak, eskapa edo libe egin zutenak ziren, baina, 1944tik aurrera talde antolatua eta armatua osatu zituzten, eta PCEren pean frankoren kontra errebeloak armatua gauzatu zuten.

Nafarroan, 1944ko urri-azaroan eman zen makiaren goraldia, 800 bat gudariak muga zeharkatuz aurrera batera. Taldetik garrantzitsuen 10. Brigadaren 300 zizonak osatzen zuten, hauek Normandiako lehorretzearen ondoren, alemaniarren kontra borrokatu ziren Beha Pirinioetako departamenduaren liberazioan parte hartu zuten. Hainbat borroka neketsu jasau ondoren, gudariak Frantziara itzuli edota sakabanatu eta Aragoirantz edo Kantabriar mendietarantz abiatu ziren. Hilabete batuan Ejerzitoak 17 hildako izan zituen, Polizia Armatuak 3 eta Guardia Zibilak 3. Ez dakigu zenbat hildako izan ziren gerillan, baina ehunetik goiti bai, hildakoak eta presoak kontuan hartzen baditugu.

Harrango urtetan, gerillak borroka saihetsu zituen Nafarroako lurraldeetan. Muga borrokarik gabe mantentzen saiatu ziren bertako lan ibilbideak erabili ahal izateko, han da, Etxalar eta Amalur ariekoa, Orreaga mendebaldekoa, Irati eta Zaraitzu aldekoa eta, langarrena, Zaraitzu eta Eskal ariekoa.

Gerillaren azkeneko eraso 1961eko abuztuaren 8an gertatu zen. "El campesino" izeneko Valentín Gonzálezek taldearen 14 maki Iratín borrokatu zirenean. Borroka horretan guardia zibil bat hil eta bertan hil zuten 12an ziren.

Los maquis fueron los guerrilleros que, tras el término de la Guerra Civil, siguieron combatiendo contra la dictadura franquista. En un primer momento se trata de simples bandos que en coordinación con el maquis para escapar de las represalias de los franquistas; desde 1944 formaron grupos mejor organizados y armados, dirigidos por el PCE, que intentaron derribar a Franco mediante la revuelta armada.

En Navarra la máxima actividad del maquis se produjo en octubre-noviembre de 1944, cuando unos 800 guerrilleros pasaron la frontera. El núcleo principal eran los 100 hombres de la 10ª Brigada, unidad veterana que había combatido contra los alemanes, y liberado el departamento de los Alpes franceses tras el desembarco de Normandía. Después de unas semanas de duros combates, los guerrilleros navarros que vivían en Francia se veían desplazados, desplazados hasta Aragón o la cuasielva Cantabria. En un mes el Ejército tuvo 17 muertos, la Policía Armada 3 y la Guardia Civil 3. Se desconocen los bajas exactas de la guerrilla, pero posiblemente exceden de los cientos y prisioneros.

Los años siguientes el movimiento guerrillero intentó evitar los enfrentamientos en Navarra. Su estrategia era mantener en calma la región fronteriza para poder utilizar las zonas limpias de posteo franquista, entre Etxalar y Amalur, al oeste de Bera, Iratzen, entre el Irati y el Salazar y como entre Irati y Etxalar.

La última acción de la guerrilla en Navarra se produjo el 8 de agosto de 1961 cuando 14 maquis de la partida de Valentín González "El Campesino" invierten un combate en el Irati, matando un miembro de la Guardia Civil y resultando heridos uno.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.



1939ko irailaren 18an, General Franco, 1939ko irailaren 18an.

## Ez dut zigortu nahi. Zigorren alternatibak



Zein kasutan da gomendagarria aurre egiten dizunikasle bat, gela “hankaz gora” jartzen duena, beste ikasleak josten dituen... zigortzea? Ez ote du ondorioz izan behar haur edo gazte hori “gaizki” portatzeak?

Haurrekin **zigor, mehatxu eta xantaiak erabiltzea zalantzan jartzera** iritsi gara. Uste dugu haurrek beren jarreraren ondorioak jaso behar dituztela, bai; baina zigorrik ez. Harreman egoki batean, ez dago lekurik horrelako neurriak hartzeko. Aldi berean, egia da, askok beste modu batera jokatu nahi badugu ere, ez dugula baliabiderik aurkitzen. Gauza bat esatea baita, eta bestea, egitea.

### Eta orduan, zer?

Ez zigortzeak ez du esan nahi haurrak dena libre duenik. Ase nahi ditugun beharrek bultzatuta egiten ditugun saiakerak dira gure jokaerak eta erantzunak (garrasiak, mehatxuak, zigo-



**Nerea MENDIZABAL**

PSIKOPEDAGOGOA ETA HAUR MASAJEKO HEZITZAILEA

rrak), bai eta haurren jokaerak eta erantzunak ere (jotzea, kasurik ez egitea, hitzartutakoa ez errespetatzea). Mugitzen gaituzten behar horiek identifikatzen baditugu, beroriek asetzeko aukerak eta estrategiak gehiago balioets ditzakegu, haurrenak eta gureak, bienak, kontuan hartuta.

### Zergatik ez zigorrik?

Hainbat arrazoi daude zigorrik ez erabiltzeko:

a) Eredu aldetik:

- Guk egiten duguna egiten irakasten diegulako: *“Haserre zaudenean edo zure gustukoa ez den zerbaitegiten dutenean, mehatxatu, zigortu, jo... Lasai, nik ere horixe egiten dut eta”*.

- Nagusitasun zapaltzailea erakusten diegulako: *“Ezin da jo, ezin da mehatxatu, baina nik bai, heldua naiz eta botere fisiko, psikologiko eta funtzionala baitaukat... Zuk ere, besteak baino handiagoa edo indartsuagoa izaten zarenean, erabili lasai”*.

- Gure arteko harremanean eragina izango duelako.

b) Jokaera aldetik:

- Beldurra, estutasuna, erremina, frustrazioa, amorrua, tristura, ezina... sor ditzakeelako, eta jokaera desegokiak izateko aukera paregabea sortzen

**Konponbide erraza da zigortzea, baina modu horrek ez ditu asetzen gutariko asko, ez zaigu eroso egiten. Batetik, geu ere ez garelako gustura sentitzen zigortu eta mehatxatzen dugunean. Eta, beste alde batetik, haurrak orain eta etorkizunean izango dituen jokaerak egokiak izango direla ziur izan behar dugulako.**



duelako horrek.

- Ziurtasunean, afektuan eta autoestimuan eragina izango duelako.

- Lortu nahi dugunaren aurkako ondorioa eragin dezakeelako: hau da, zuzendu orde, bizitu egin dezake. Batzuei ahaztu egiten zaie zer egin duten, baina zigorrarekin gogoratu egiten dira; beste batzuk zuhurrago bihurtuko dira, edo ezkutatzen joko dute... Hori al da nahi duguna?

- Askotan ez duelako ezer konponzen: nahiz eta, batzuetan, epe motzera funtzionatu (funtzionatzea guk nahi dugun hori lortzea baldin bada), epe luze ez da eraginkorra (zigorrak edo sariak handitzen joan behar dugu, eraginkorak izan daitezen), eta, areago, zauriak sortzen ditu erlazioan. Nik, behintzat, ez dut gogorik izaten mehatxatzen nauen norbaitekin harremanetan jarraitzeko, eta haurrak ez dira beste espezie batekoak.

Gure jarrerak eta hitzak leioak edo horma sendoak izan daitezke, elkarrengana gerturatzea eragotz edo erraz dezaketenak. Zigortzeak "min ematea, iraintzea..." esan nahi du. Guztiok, haur zein heldu, amorrus, ezintasunez, trisuraz, errudun sentipenarekin... eran-

tzuten dugu min, irain edo zigoren aurrean, eta, ondorioz, bi aukera izaten ditugu:

- a) lhes egin
- b) Eraso

Beste era batera esanda, zigortzen dugunean, haurra, bere akatsei aurre egiteko barne prozesu garrantzitsurik gabe uzten dugu, gure arteko erlazioan urruntzeaz eta lortu nahi duguna urrutiratzeaz gain.

Gure ikasleekin arazoren bat dugunean, ez ditugu gure indarrak elkarren aurka erabili behar, eta ez gaitu kezkatu behar irabazle edo galtzaile irteteak.

Konponbide erraza da zigortzea, baina modu horrek ez ditu asetzen gutariko asko, ez zaigu eroso egiten. Batetik, geu ere ez garelako gustura sentitzen zigortu eta mehatxatzen dugunean, erlazioa ez delako guri gustatuko litzazigukeen modukoa, gelako giroa ez delako gustukoa. Eta, beste alde batetik, haurrak orain eta etorkizunean izango dituen jokaerak egokiak izango direla ziur izan behar dugulako, nire programazioa eta helburuak betetzeko baldintza errazagoak nahi ditudalako, eta abar.

Baina maitasuna, intentzioa eta nahi izatea ez da nahikoa, zerbait gehiago behar dugu, eta, guk ere eredu hori jaso dugunez, askotan ez dugu beste baliabide edo erreferentziarik aurkitzen.

### Nola ikasiko du?

Ez zigortzeak ez du esan nahi dena libre duenik, ez du esan nahi gehiegizko permisibitatea dugunik.

Marshall Rosenberg-ek (**Komunikazio ez-bortitzaren** egilea) dio denok, bai haur eta ikasleek, eta bai heldu eta irakasleek, bestearen ongizatean laguntzeko intentzioa eta beharra dugula, baita gureganako intentzioan iraulta gabiltzanean ere, azkenean horrek bestearen ongizatean ere eragiten duelako; eta halaxe da garrasi egiten dugunean edo norbait zigortzen dugunean ere, nahiz eta modu tragikoan izan. Autore horrek dio, gainera, bi gauza dau-

delat bestearen ongizatean eta geurean laguntzeko behar horretara gerturatzeko gaituztenak, edo behar horretatik urruntzen gaituztenak: besteak epaitzea eta zigortzea.

Beraz, hauxe esan dezakegu: gure ikasleek bestearen ongizatea bilatzeko intentzio hori ez dutela ikusten badugu, beren bizi esperientzian edo ingurunean benetako epai, zigor edo zigor-mehatxuak iristen zaizkielako izan daiteke.

Hori horrela izanda, eta horrelako egoerak desblokeatu nahi baditugu, garrantzitsua da gertatzen ari dena aztertzea, eta arreata jartzea. Hauek dira aztertu eta kontuan hartu beharreko alderdiak:

#### a) Irakasleak

- Noiz erabiltzen ditu zigor, mehatxu edo xantaiak? Irakasleak kasurik ez dioala egiten, hitzartutakoa ez duela errespetatzen, egin dezakeen guztia ez duela egiten, ez zaiola ezer interesatzen, ez duela entzuten, nahi duen guztia egiten duela... interpretatzen duenean.

- Nola sentitzen da? Amorratuta, frustratuta, gaitasunik gabe, kokoteraino, etsita, desanimatuta, desesperatuta...

- Zergatik erabiltzen dituen? Bakea edo lasaitasuna behar duelako, gelarako eta gaiaren funtzionamendurako kolaborazioa ongi datorkielako, haurrak ikasiko duela eta garatuko dela ziur izan behar duelako, haurren ongizaterako ekarpena egin nahi duelako, bere irakasle lanean ziurtasuna behar duelako, bere balioen eta besteek beregan jarri dituzten itxaropenen arabera, betetzeko dituen helburuetara iristeko gauzak erraztu nahi dituelako...

#### b) Irakasleak

- Zer da egiten duena? Aldamenekoarekin hitz egiten du, ez ditu egin eskatutako lanak, gelako materiala puskatu egin du, ikasleak jotzen eta iraintzen ditu, oso ozen erantzuten du...

- Nola sentitzen da? Aspertuta, urduri, gogorik gabe, haserre, nekatuta, gaitasunik gabe, minduta, triste, bakarrik,

nahastuta, motibaziorik gabe...

- Zer behar du, zer lortu edo eskatu nahi du, guretzat desegokia den modu horrekin, mementoz beste modu batera azaldu ezin duen modu horrekin? Ulermena (eguna joan eta eguna etorri, ez zaiola erraza egiten helduen eskaerei erantzutea, gustuko ez duen leku batean), mugimendua, ondo pasatzea, eskatzen duenari edo ikasi behar duenari zentzua aurkitzea, berarentzat garrantzitsua dena kontuan hartzea, ikasleak berak ere aukeratzea beraren inguruko erabakiak hartzerakoan, ikasleari entzutea, elkarriketa, errespetua (ikasleari berari ere ahots doinu atseginen hitz egitea, hitz peioratiborik erabili gabe, gardentasuna, manipulaziorik eta ironiarik gabe, etiketarik gabe...), ikaslearengan konfiantza izatea, laguntza eta babes (irakasleak gidatua eta lagundua sentitzea), giza harremanetan oinarritutako arreta goxoa, eta soilik ikastea eta ondo portatzea eskatzen diogun objektu modura ez tratatzea...

Hortik aurrera, **Komunikazio ez-bortitzak** tresna bat eskaintzen digu, gure haurrekin haiek epaitu gabe eta zigormehatxuak erabili gabe jarduteko. No-

**Gure ikasleek bestearn ongizatea bilatzeko intentzioa ez dutela ikusten badugu, beren bizi esperientzian edo inguru-nean benetako epai, zigor edo zigormehatxuak iristen zaizkielako izan daiteke.**

**Hori desblokeatu nahi badugu, garrantzitsua da gertatzen ari dena aztertzea, eta arreta jartzea.**

la? Enpatiaz entzunez, esan edo egin duenaren deskribapena aztertuz, haurra edo ikaslea nola sentitzen den eta zer behar duen irudikatuz, eta nik irudikatzen dudana hori horrela den edo ez ziurtatuz, harekin hitz eginez: *“Ainboari bultzaka ari zinen bitartean, ‘tuntuna’ esan diozu, eta amorruz eta ezintasunez betetako memento batean zeundela imajinatu dut; beharbada, ez delako kontuan hartu zuretzat garrantzitsua den zerbait, zuri gustatuko litzaizukeen begirunea ez duelako izan. Hori al da?”*. Haren erantzunak horrela aztertuta eta erantzuten diguna kontuan hartuta, modu bortitz eta desatsegin horretan adieraztera bultzatu duen behar horretara iristen saiatuko ginateteke.

Azterlan hori egiten dudanean eta haurra edo ikaslea ulertua sentitzen dela ohartzen naizenean, nik jakitea nahi duen beste ezer ba ote dagoen galde diezaioket. Besterik ez badago, haren jarrerak edo jokaerak niregan zer eragin duen jakitea gustatuko ote litzaiokeen galde diezaioket. Horrela, zer egin duen edo esan duen deskribatuko nuke, nola sentitzen naizen horrekin, zer behar dudana, eta zer eskatzen dudana: *“Zuretzat garrantzitsua zen gauza horrengatik zure amorrua bultzatzen egiten eta ‘tuntuna’ esaten adierazi duzula ikusi dudanean, niretzat errespetua eta pertsonetikiko begirunea garrantzitsuak direla ohartu naiz; eta, batez ere, konfiantza izan behar dut, eta besteei minik eman gabe adieraz dezakegula sinetsi. Eta konfiantza eta begirune hori ez dauzkadanean, triste eta desesperatuta sentitzen naiz. Zer iritzi duzu zurekin partekatzen ari naizen honi buruz?”*.

**Harenaren eta nerearen arteko zailtasuna / Harenarekin eta nirearekin dantza eginez**

Bi pertsonaren arteko harremanen bien beharrak aintzat hartzen badira, egoera erraza dela esan dezakegu, irekitasuna eta irtenbidea daudela. Egoera zaildu egiten da, ordea, bien beharren kontzientziarik ez dagoenean,

**Bi pertsonaren arteko harremanen bien beharrak aintzat hartzen badira, egoera erraza dela esan dezakegu, irekitasuna eta irtenbidea daudela. Egoera zaildu egiten da, ordea, bien beharren kontzientziarik ez dagoenean, alegia, bien beharrak kontuan hartzen ez direnean.**



alegia, bien beharrak kontuan hartzen ez direnean.

Irudika dezagun honako egoera hau: irakasleak gaia azaltzeko isiltasuna nahi du, haurrek ez dute inor jo behar, esandakoa bete egin behar dute... Bestalde, ikasleek ondo pasatu nahi dute, ikasten dutenari zentzua aurkitu nahi diote, aukerak egiteko autonomia izan nahi dute... Hor, aukera gutxi daude egoerak bi taldeen beharrak asetzeko, hau pentsatzen badugu: *“Zer egin dezakegu zurea **edo** nirea kontuan hartzeko?”*. Hori pentsatzen badugu, bukaeran batek “galdu” eta besteak “irabazi” egingo du, horixe izango da emaitza.

Aitzitik, gure haur eta ikasleen beharrekin eta geureekin, bienekin, lotzen bagara, errazagoa izango da denontzat baliagarria den irtenbidea aurkitzea. Denok besteen beharrak ulertzen baditugu eta enpatiaz jokatzeko badugu, *“Zurea **eta** nirea kontuan hartzeko zer egin”* behar dugun pentsatuko dugu eta, beraz, denok “irabaziko” dugu, batzuen zein besteena hartuko baita kontuan.

**Konexio edo lotura horretatik estrategia sortzaileak iritetzen dira**

Beharrak asetzeko modu askotarikoak daudela kontuan izanda, eta ba-

## Irtenbidea aurkitzeko estrategia egokia bilatzerakoan, helburua ez da gure ikasleak aldatzea.

Helburua beraiekin lotura egitea da, gero, aldaketa ekarri edo ez. Garbi dago lotu-

ra horrekin ez dugula ziurtatzen guk nahi dugun hori lortuko dugunik, baina beharrezkoa da.

koitzari gustatuko litzaiokeen modu hori modu bakartzat hartzen ez badugu, oso baldintza onak izango ditugu denon beharrak aintzat har ditzakeen estrategia bat aurkitzeko.

Baina irtenbidea aurkitzeko estrategia egokia bilatzerakoan, helburua ez da gure ikasleak aldatzea. Helburua beraiekin lotura egitea da, gero, aldaketa ekarri edo ez (baina aldaketa ez da lehentasuneko helburu). Garbi dago lotura horrekin ez dugula ziurtatzen guk nahi dugun hori lortuko dugunik, baina ziurjakingo dugu lotura hori egin gabe baino errazagoa izango dela.

Horrek esan nahi du, ikasle batek gelan entzuten zaila den zerbait esaten badu, ikasle horrekin lotura egitera jo dezakedala, haren hitzak hitzez hitz entzun gabe. Hau da, lerro artean irakurriz eta esaldi horren edo haren keinuen atzean benetan zer dagoen ikusiz (empatiazko entzumena). Pentsa dezaket ikusia izateko beharra daukala, arreta behar duela, taldean leku bat behar duela..., eta hor, gure zeregina gure ulermena helaraztea izango litzateke (horrek ez du esan nahieskatzen duena onartu edo emango diogunik): “Zer gertatzen zaizue, kokoteraino zaude-te, nekatuta, abailduta, eskatzen ari natzaizuena gehiegizkoa egiten zai-

zue, irakasleok lana, lana eta lana, besterik ez dizuegu jartzen, eta nabia-go zenukete bitz egin, jolasean edo futboleko ibili?...”. Horrela, ikasleek ulertuak direla senti dezakete, eta nirea entzuteko prestasun handiagoa izan dezakete: “Aizue, ulertzen dizuet, eta badakit garrantzitsua dela hori zuentzat. Aldi berean, ziur egon nahi dut nire gaia ematen amaituko dudala. Har al ditzakegu 5 minutu erlaxatzeko, lasaitzeko, eta jarraituko al dugu gero gaiarekin?”. Horrela, haienak eta nireak elkar topatuko duten puntu batera iritsiko gara.

Irakasleen eta ikasleen artean entzumena eta ulermena lantzea **hitzezko komunikazio proposamen bat da**. Horrez gain, ikasleek eta irakasleek behar horiek guztiak dituztela jakinik, garrantzitsua da jarrera eta jokaera aldatzen laguntzea, eta gelako nire egunerokotasunean egiten dudana aztertzea. Hau da, zer egiten dut nik ikasleen behar horiek elikatzeko, nahiz eta haiek zuzenean horrelakorik ez eskatu? Zer leku ematen diotumoreari, ondo pasatzeari, esperimentazioari... , daukadan ikasgai honetan? Nola bultza ditzaket laguntasuna eta elkarren arteko lotura? Zer leku ematen diet haien konfiantzari, mugei, afektuari, egiten dutena aitortzeari, ikasten dutenaren zentzuari, behar duten laguntzari...? Nola barnera dezaket hori guztia, nire irakasle izateko estiloan? Zer egin dezaket irakasten diedanak oinarrian hori izan dezan?

Argi azaldu nahi dut gelako giro horri lehentasuna emateak eta hori zaintzeak duen garrantzia, horrek ekarriko baitu ikasleek beren beharrak eta gureak entzutea. Behar horiek zenbat eta gehiago kontuan hartu, lotura indartsuagoa eta ziurragoa izango da, konfiantza eraikiko dugu, ikasleen alderdi emozionala elikatuko dugu, eta, horrela, nik helarazi nahi diedan ikasgaia jasotzeko prestatuago eta hobeto egongo dira.

Eta ez dut amaitu nahi honako hau esan gabe: proposamen horiek egiten ditudanean, ez dut esan nahi modurik onena hori denik, eta, desberdin egiten

badugu, gaizki ari garenik. Ez. Edonola ere, hemen esandakoek zentzua dutela iruditzen bazaizue, gonbidapen hau egiten dizuet:

**Baliotsi** eta eskertu, bota dudan garrasi horretaz edo askatu dudan mehatxuz konturatu izana, eta beste era batera egiteko gai izateko gaitasun desira-rekin konektatu izana.

**Ospatu** konturatu izana, eta beste modu batean egiteko dudangoa, benetan aldatzeko zerbait konkretua jartzeko dudana intentzioa, eta aldaketak egiteko (barnekoak edo kanpokoak) baimena hartzea.

**Dolua** egin, beste modu batean egiteko eduki ez dudana gaitasunak ematen didan tristura jasota.

**Ulertu**, une horretan daukadanarekin eta dakidanarekin (nire energia, nire baliabideak, nire itolarria eta nekea, nire presa, pazientzia...), ahal dudana ondo egin dudala.

**Onartu** (nigan eta besteengan), izan ere, ez badut onartzen memento bakoitzean ahal dudana ondo egin dudala, errudun sentitzera joko dut.

**Aitortu** egiten dudana **guztia**, egiten dudana gauza bakoitzaren atzean dudana intentzioa.

### Zer eredu helarazten dugu?

Gure ikasleekin ditugun interakzio askotarikoek jokatzeko eredu bat ematen diete.

Azken batean, gure hitz eta jokaerekin, hauxe erakuts eta esperimenta dezakegu, zailtasun edo gatazken aurrean: **a) indar handiena duenak bestea mendera dezake; b) denok aseko gaituzten moduak bila ditzakegu.**

Azken horrek lagunduko digu, ziurrenik, gure ikasleekin dugun harremanaren kalitatea hobetzen eta norberarekin eta besteekin izango ditugun loturak landatzen.

Horrekin guztiarekin, uste dut eza-gueren ikasketetako bide zuzen eta eraginkorragoa izateaz gain, bizitzarako opari bat egiten ari garela. Eta horrek motibatu egiten nau ibilbide posible gisa eskaintzera. ●



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

abendua

berriak

# “Hezkuntzan aniztasun afektibo-sexuala” jardunaldia oso argigarria izan da



“Hezkuntzan Aniztasun Afektibo-Sexuala. Identitate sexuala. Transexualitatea” jardunaldia egin zen Donostian. Bertan, hirurogeiren bat kidek hartu zuten parte.

Hezitzaileak izan baziren ere bertaratu zirenak, batez ere, gurasoak, psikologoak, sexologoak eta abar ere han izan ziren.

Hizlaria, Silberio Sáez Sesma, Amalteasexologia eta psikoterapia institutuko psikologo-sexologoa izan zen.

Goizean, aurkezpen argigarriak eskaini zituen, eta, arratsaldeko tailerra, berriz, oso modu argian eta praktikoan bideratu zuen.

Sexuen arteko diskriminazioa eta

diferentzia bereiztu zituen. Diskriminazioa diferentziari etekina atera nahi zaionean gertatzen dela esan zuen. Diferentzia, aldiz, balio gisa hartzen du, identitatea eta orientazioarekin zerikusia duena.

Bestalde, argi utzi zituen sexua, sexualitatea eta erotikaren arteko aldeak. Sexuak argi bereizten du: gizona edo emakumea. Erotikak *amatoria*-rekin du zerikusia. Sexualitateak, berriz, norberak duena, norberak senti-


tzen duenarekin du erlazioa.

Sexualitatearen garapenean, bost une kritiko omen daude:

1. Genetikoa (XX edo XY).
2. Gonodala.
3. Barruko genitalak.
4. Kanpoko genitalak.
5. Buruko neuronala. Hipotaliko ardatzarekin zerikusia duena.

Garapen guztiak sexu baten alde egin dezake, baina *orientazioaren uneak* (*adreiluak* zioen Silberiok) beste sexura jotzen badu, transexualitatea gertatuko da. Gorputza sexu batekoa izan liteke, baina, sentitzea, nahi izatea, bestekoa.

Horregatik, zentzuzko hiru pauso ikusten ditu beharrezko: 1. Nork bere burua ezagutzea; 2. Norbera onartzea; eta, 3. Nork berea gestionatzea.



# “Haur txikien mugimenduaren behaketa” jardunaldiak



Azaroaren 5ean Durangon eta 6an Donostian “Haur txikien mugimenduaren behaketa” jardunaldiak egin ziren Hik Hasik antolatuta.

Bi egunetan, hezitzaile ugari hartu zuen parte, guztira, 600dik gora.

Oso interesgarriak izan ziren bi egun horietako jardunaldiak, Myrtha Chokler eta Elena Herran irakasleen azalpenak argigarriak izan baitziren.

Udazkenero, Haur Hezkuntzako hezitzaileentzat jardunaldiak antolatzeko asmoa du Hik Hasik.

## Haur txikien % 40 eskolatzen da Hegoalden



Europar Batasunak 2002an Bartzelonan jarri zituen helburuak erraz gainditu ditu Hego Euskal Herriak, jada. Izan ere, helburu haien arabera, 2010ean 4 urteko haurren %95 eskolatzea zen asmoa; 3 urteko %90; eta, 0-2 urte bitarteko %33.

Hego Euskal Herrian, gaur egun, 3 eta 4 urteko ia haur guztiak daude eskoletan. 2 urtekoak, berriz, Europan 4 urtekoentzat jarritako eskolatzeko kopuruan aurkitzen dira (%95), eta, txikienen artean, 0-1 urtekoen portzentzaiak %40 gainditu du, dagoeneko.

## Telebistek emakumeak diskriminatzen dituzte



Unicef erakundeak telebisten programen gainean egin duen ikerketa baten arabera, telebistak, anorexia, bulimia eta alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa sustatzen du.

Telebistako programek emakumeak nabarmen diskriminatzen dituzte. *Telecinco* da salatuena. Gaztetxoan iriziz, “Mujeres y hombres y viceversa” eta “Sálvame” dira diskriminazioa gehien sustatzen dutenak. Oro har, % 55,5ak uste du *Telecinco* katea dela sexistena.

Horrez gain, “Padres de familia” (La Sexta) arrazakeriarekin lotzen dute eta “Física o química” (Antena 3) homofobia dela irizten dute.

Ondorio horiek guztiak, Espainiar Estatuko 12-18 urte bitarteko 3.219 ikasleri egindako inkestetatik atera dituzte.

2. edizioa

# Joseba Sarrionandia

hausnarketa sustatzeko

133 ipuin labur



Itsusiak eta ederrak,  
irekiak eta burugorrrak,  
alferrak eta kementsuak,  
zuzenak eta bihurriak,  
gupidagabeak eta onberak,  
argiak eta mozoloak,  
egoistak eta emankorrek,  
egiazaleak eta gezurtiak,  
maitagarriak eta higuigarriak  
izan gara luzaroan.

Orain, aldatzen ari gara.



*idazlea zeu zara,  
irakurtzen duzulako*

*josebasarrionandia*

Eskaintza berezia DURANGON

hh

# Martxan da Elhuyar Fundazioaren Teknoskopia proiektu-lehiaketa



Urtero legez, Elhuyar Fundazioak Teknoskopia lehiaketa abiarazi du. Gazteei zuzendutako lehiaketa guztiz berrituta datorkigu aurten: ideia-lehiaketa zen lehen; orain, berriz, **proiektu-lehiaketa**. Sarietan ere bada berrikuntza aipagarririk: lehiaketa irabazten dutenek ordenagailu ultraeramangarri

bat eta Tecnalia korporazio zentro teknologiko batean astebegeteko egonaldia jasoko dute sarizat. Egonaldi horretan, benetako ikertzaileekin lana egiteko aukera izango dute.

*DBHko 2. zikloko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ziklo ertaineko eta goi-zikloko ikasleek* har dezakete parte Teknoskopiaan, gehienez hiru laguneko taldeetan antolatuta. Teknoskopiaren helburua da

gazteak ikerketan eta ikertzaileen jardueran murgiltzea, eta ikerketa edo proiektu teknologiko bat antolaraztea. Beraz, proiektu baten prozesu osoan hartuko dute parte gazteek: ideia sortu, prozedura diseinatu, pausoz pauso hura gauzatu, eta ondorioak atera. Bi modalitatetan har dezakete parte: Ikerketa

proiektuan edo Proiektu teknologikotan. Ikerketa-proiektua modalitatean, aukeratutako arazoari konponbidea emateko ikerketa-lan bat garatu behar dute gazteek; Proiektu teknologikoa modalitatean, berriz, aukeratutako arazoari konponbidea emateko produktu teknologiko bat diseinatu behar dute.

Proiektuak garatzeaz gain, haiek gizarteari komunikatzeko gaitasuna ere izan behar dute ikasleek; horregatik, komunikazio-lan onenek ere saria izango dute kategoria guztietan: iPod bana eta Elhuyarren produktu sorta bana jasoko dute hobekien komunikatzen diren taldeek.

Teknoskopia izena emateko epea zabalik da, jada, Teknoskopiaren <http://teknoskopia.elhuyar.org> helbidean.

Lehiaketari buruzko oinarriak ere webgune horretan bertan dituzue.

## Informazio gehiago:

Rakel López · Elhuyar Fundazioa  
Tel.: 943 36 30 40  
[r.lopez@elhuyar.com](mailto:r.lopez@elhuyar.com)  
<http://teknoskopia.elhuyar.org>

## Hik Hasik argitaratutako Reggio Emiliaren monografikoa gaztelaniara itzuli dute



Hik Hasiko bi kide Santanderren izan ziren. Liburuaren aurkezpenean bat, eta, Francesca Dávoli italiarrarekin bestea.



Cantabriako unibertsitateak, Hik Hasik 2007an argitaratutako "Reggio Emilia 0-6 urte bitarteko Udal Haur Hezkuntza" monografikoa, gaztelaniara itzuli du.

Urriaren 26an, Santanderreko unibertsitatean izan zen Hik Hasi, Haur Hezkuntzako 130 irakasleen aurrean aurkezpenean egiten, Cantabriako unibertsitateko ordezkariekin eta Reggio Emiliako Francesca Dávoli italiarrarekin batera.



**Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...**

**>>> Seaskako ikastolei ikastetxe pribatuen trataera eman nahi die Philippe Rey prefetak, lagundu nahi duten herriko etxeak mehatxatuz. Seaskako Paskal Indo lehendakariak, aldiz, beraiek zerbitzu publikoa betetzen dutela dio. Eta, zuk zer diozu?**

#### **> Iparraldean gisa, Nafarroa Garaiko hegoaldean**

Seaskakoa irakurtzean, Nafarroako zonalde ez euskaldunetan dauden ikastolak etorri zaizkit gogora. Han bezala, legearen arabera, ezin dute ikastetxe publikoek euskarazko murgiltze sistema erabili. Horrela, nafar askoren nahiari uko egiten diote. Izan ere, euskara Nafarroako hizkuntza izanik, askok nahiko lukete seme-alabak euskaraz eskolatzea, baina legeak sare publikoan horrela izateari uko egiten dionez, beste aukera batzuk erabili behar dira, derrigorrez.

Ikuspegi horretatik, ikastolek herritar askoren nahiari erantzuten diote, eta, bere zerbitzua herritarrei begira egina dagoenez, ukalezina da herritarra dela bere zerbitzua. Hau da, zerbitzua guztiz publikoa da.

Ez al zitzaigun gauza bera gertatu diktadura garaian ikastolak sortu zirenean? Herritarren beharrei modu irekian erantzun zaien heinean, zerbitzu publikoa eskaintzen da, ez dago bueltarik! *Miren Bereziartua.*

#### **> “El Pais” egunkaria “El Mundo”ren bidetik**

Aipatzen duzun “El mundo” egunkariko inkestak gogora ekarri dit “El Pais”ek duela gutxi egin duena. Badirudi interesa sartu zaiela herritarrei galdetzeko. Ideia ona da asmoa sana bada, baina hala al da? Ezin jakin.

Nik ikusten dudana da, normalizatzea suposatzen duen oro, zaila egiten zaiela onartzea boteretsu sentitzen diren horiei. Hain kaltegarri al da herrien hizkuntza eta kultura onartzea eta garatzen uztea? Errespetuan dago gakoa. Jendearen nahia eta kulturaren garapenak nori egin diezaioke kalte? Jendearen nahia aurrera eramateko trabak jartzen direnean, nola interpreta litezke inkestak, galdeketak eta abar?

Galdetu nahi badute, galde dezatela, baina errespetatzen ikastea hobe litzateke. *Luis B.*

#### **> Zeharo aspergarria da**

Izenburua irakurrita, bizitzaz edo jendeaz aspertuta nagoela pentsa lezake norbaitek. Ez, ez da hori. Jendea, oro har, jatorra dela iruditzen zait, eta, bizitza, zoragarria da probetxu ateratzen asmatuz gero.

Asperdura, beste nonbaitetik datorkit: zaharkituta dagoen sistema jasan behar izatetik, inposaketak sufritu behar izatetik, errepikatzen diren topikoak entzun behar izatetik, norbanako interesak gizartearen interesen aurretik jartzen direla ikustetik... Niretzat oso erraza, etikoa, estetiko eta osasungarria da. Gizarte hobe egiteko, jendeak nahi duenari so egitea, errespetatzea, balio onak garatzeko aukera eskaintzea... Edonori libre eta pozik bizitzeko aukera eskaintzea. *Kotte Juanbeltz.*

### **Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...**

**>>> “Irrien Lagunak Kluba” sortu berri da. Aldizkari honetan bertan, euskal jendarteari zer eskaini nahi dion informatu dugu. Zer iritzi duzu Klubaren gainean? Zer ekarpen egin dezake? Zer arrisku ikusten dituzu? Zer proposamen berri egin liteke?**

## **Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?**

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

# argitalpenak



## Jone eta Martinen egunkaria

Joserra López

NAFARROAKO GOBERNUA

Elkarbizitza erregulatzeko errespetua eta oinarrizko arauak adostea bezain beharrezkoa da sortuko diren gaztekei aurre egiten ikastea. Hori lantzeko helburuarekin proposatzen dira 5. eta 6. mailako ikasleentzako zenbait egoera eta ariketa, irakasleentzako oinarri teorikoarekin batera. Informazioa [www.cfnavarra.es/publicaciones](http://www.cfnavarra.es/publicaciones) hezkuntza atalean. •



## Meriendatzera etorri zen tigrea

Judith Kerr

PAMIELA

1968an lehen aldiz argitaratua, us-tekabean etorritako bisitari buruzko istorio surrealista idatzi zuen Judith Kerr-ek, idazle berlingarrak. Nork joko atea eta tigre barretsua agertzen zaie Sofiari eta amari meriendatzen ari direnean. Horiek naturaltasun osoz hartu eta mahaira gonbidatzen dute felido aseezina... 7 urtetik gorako haurrentzako kontakizuna. •



## Euskal mitologiako kondairak haurrentzat

Txiliku / Jose Anjel Lopetegi

ELKAR

Euskaldunen kosmogoniaman ere baditugu ezagutzea merezi duten pertsonaia eta kondaira ugari. Beraingana eramango gaitu Nerea eta Julen 9 eta 7 urteko anaia-arreben jakin-minak. Ordenagailua piztu eta itzaltzearekin batera nahastuko dira errealitatea eta fikzioa kontakizunean. Txiliku zarauztarraren azken lana da. •




## Adiskidetzetxe magikoa

Uan

VENSIS

Uli, adarbakarra, eta Txispas, he-rensugea, Urkien basoan bizi ziren. Amura ibaia esnatu eta kantuan hasi zenean ezagutu zuten elkar. Adiskidetzetxe magiko hark gaitasun ezezagunak agerazi zizkien. Ulik begiekin baino harago ikus zezakeen, eta Txispasek edonor eraldatu bere sugarrekin. Benetako adiskidetasuna eraikiko dute biekin. •



## Unibertsoari buruzko mitoak

Ekain Mtz. Lizarduikoa

GAIK

Munduaren sorrerari buruzko kontakizun sakratuak, mitoak, dira kosmogoniak. Bost kontinentetako etniek (maoriek, bantuek, maiek, babiloniarrek, tibetarrek, inuitek, navajoeak, bikingoek, fonek, tximanek, egiptoiarrek,...) beren kosmosa eraiki izan dute antz handiko ezaugarriekin. Giza imaginarioa bakarria ote da gero? •



## Zer gara gu. Nor gara gu

Gotzon Barrueta / Iosu Mitxelena

ELKAR

Ibaiak, kirolariak, ohiturak, sukaldaritzak, euskara, museoak, jaiak, mendiak, margolariak, antzina... 54 karteetan, taula eta dadoekin aritzeko. Helmugara lehenbizi heltzea edo kartarik gabe geratzea izango da garaitzeko garaia. Larrialdietan komodinekin lagunduko digute. 6 urtetik gorakoentzat. •

# ... nora joango gara?

## Burdin Harana

### Europa osora zabaldutako burdina

Egitasmoaren abiapuntua Urola Garaiko Turismo Bulegoa da, Legazpiko Mirandaola Parkean dagoena, Aizkorriren magalean. Mirandaola Parkeak "Burdinaren taupadak" ibilbideko zenbait gune ere barnean hartzen ditu: Mirandaolako Burdinola, Mirandaolako ermita eta Euskal Burdinaren Museoa.

Horrez gain, oso-osorik burdinaz erakitako Europako frontoi bakarra, arranparrilak dituen berdegune zabala eta haur parkea ere aurkituko dituzu parkean.

#### Zer dago?

Urola Garaia eskualdeko natura eta industria ondarea, ondare historiko-artistikoa eta nekazaritza ondarea osatzen duten hainbat elementu eta gune aurkitu ahal izango dituzu Burdin Haranean.

Ibilbideak, museoak, bisita didaktikoak..., eskualdea bisitatzeko behar den informazio guztia aurki daiteke.

#### Euskal Burdinaren Museoa

Legazpiko antzinako galdaketa fabrika batean dago Euskal Burdinaren Museoa, eta hainbat ikuspuntutatik aztertzen du burdina: historia, teknologia, zientzia, industria, ondarea, paisaia, eta abar. Horrez gain, museoa hartzen duen "Fundiciones San Miguel" fabrika zaharreko jatorrizko elementuak



gorde egin dira, eta erabilera berrien araberrako funtzioak eskaini zaizkie. Elementu eta euskarrien material, forma eta koloreek haren industria izaera nabarmendu egiten dute, eta museoko bisita esperientzia paregabe bihurtzen dute.

#### Ibilbideak

"Burdinolen ibilbidea"n hainbat proiektu ikus daitezke, bisitariari Erdi



Arotik industrializazioa Legazpira iritsi zen arteko (XX. mende hasiera) burdinaren inguruko lanaren ikuspegi zabala eskaintzen diotenak. Proiektuen artean, besteak beste, burdinola zaharrak berreskuratu egin dira eta esku-hartze arkeologikoak egin dira.

#### Zumarraga, Legazpi, Urretxu eta Ezkio-Itsaso

Herri horiek Urola ibaiaren jaiotza-erlekuko dira. Miniaturazko Gipuzkoa barnealdeak, ibaiaren indarrak eta ibai hori besarkatzen duten gailur, baso eta zelaien paisaiak sortutakoak, hiriren eta landa ingurunearen bizikidetzatza islatzen du. Bizikidetzatza horrek hainbat lekuko utzi ditu historian (burdinolak, ermitak, dorretxeak, jauregiak, base-riak...), baita naturarekiko harrema-





naz gozatzeko balio handiko gune naturalak ere.

Giza jarduerak iraganaren arrastak utzi ditu Urola Garaia eskualdean. Arrolamendi, Aantzetako Gaina, Pago-bakarra, Oleta eta Elorrietako tumuluak, eta Oamendi, Irumugarrieta eta Irumugarrieta II-ko dolmenak, Historiaurreko gizakiak gure eskualdean utzitako aztarnak dira.

Ermita eta elizetan gauzatzen da elizkizuna, adibidez, Andre Mariaren elizan (Antioko basilizan), Jasokundeko Andre Mariaren elizan, Urretxuko San Martin de Tours elizan edo Jasokundeko Ama Birjinaren elizan; San Migel Goiaingeruaren elizan eta San Bartolome elizan. Agerraldiek ere utzi dute arrastorik. Horren adibide da Anduagako zelaia (Ezkio).

Badira mundu zibilarekin lotutako beste adierazgarri batzuk ere: udalak; Jauregi Handia (Legazpi Etxea), Areizaga, Baroikoa, Ipeñarrieta, Elorregi eta Bikuña jauregiak; baserriak, hala nola Igartubeiti baserria, Urretxuko Erdi Aroko alde zaharra eta Zumarragako plaza; baita eskualdeko geografia ziprizontzen duten gurutzadura, piko, karobi, elurgune eta eskulturak ere.

Zepategiak, burdinolak, presak, ubideak, meatzeak, labeak, lantegiak, fabrikak, bizitegiak, gizarte eraikinak..., horiek guztiek eskualdean oso errotuta egon den eta burdinaren kulturari lotuta dagoen industria jardueraren arrasto fisikoen multzo aberatsa osatzen dute. ●

## BURDIN HARANA

Mirandaola Parkea, Telleriarte auzoa z/g  
20230 LEGAZPI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 73 04 28  
Faxa: 943 73 31 63  
e-mail: [mirandaola@lenbur.com](mailto:mirandaola@lenbur.com)  
Web gunea: [www.lenbur.com](http://www.lenbur.com)



### Oharrak:

#### Udako ordutegia (ekainetik irailera):


- *Astelehenetik igandera*: 10:00etatik 19:00etara
- *Astearte*: itxita

#### Neguko ordutegia (urritik maiatzera)

- *Astelehenetik ostiralera*: 10:00etatik 17:30era
- *Larunbat, igande eta jaiegunetan*: 10:00etatik 18:00etara
- *Astearte*: itxita

## HISTORIA PIXKA BAT

**Legazpin duela 1.000 urte baino lehenago hasi zen burdinaren historia. Hasieran, burdina mendiko haizeoletatik lortzen zen. Geroago, teknika berriez baliatuz, gurpil hidraulikoaz kasu, burdinolak ibaiertzetan kokatu ziren, eta ekoizpenak nabarmen egin zuen gora. Urola (uraren indarrez dabilen ola) ibaiaren ibilguan 15 burdinola baino gehiago egon ziren, eta euskal burdina, zuen kalitateari esker, erreferentzia bihurtu zen Europako merkaturik garrantzitsuenetan. Burdinolen Urrezko Aroa izan zen.**



# atzeko atetik



**Ramon AGIRRE**

AKTOREA

Gure ikastola, Donostiako Artzai Onaren (artean Buen Pastor) plazako pisu batean zegoen. Zehatzago esanda, Lacasa familiaren etxeko egongela. Donostia erdialdeko etxeak haundi samarrak dira eta altzaririk gabeko gela hartan (andereñoarena zen aulki bakarra) egoten ginen, lurrean eserita, adin desberdinetako mutil eta neska mordoxka.

Noizean behin baten batek besoa jaso eta baimena eskatuta (Andereño, joan leiket komunera?) altxatu eta gelatik alde egiten bazuen, agerian uzten zuten zoru puska egurrezkoa zela ohar-

## Kantuz sortu naiz eta...

tzen ginen. Eta, hara! oholen arteko arrakalak arkatzen mina-mutur beltz, gorri eta urdinez beteta zeuden. Nerezat etengabeko jolasa bihurtu zen mina puska haiek hatzazalez ateratzen saiatzea. Eta egurrezko itsaso hartan arrantza egiteko amua zenbat eta luze-ago, hobe. Orain badakit zergatik ez dudan sekula hatzazalei kosk egiteko ohiturarik izan.

Barka! Ez dizuet gure andereñoa aurkeztu. Karmele Esnal du izena. Guretzat Andereño Karmele, edo Andereño! zerbait esan edo galdetu nahi genionean. Noizean behin bisitaren bat izaten genuen ikastolan. Andereñoen laguna ote? Nobiyua? Ba zen bat sarritan etortzen zena eta neri beldur pittin bat ematen zidana. Dexteko beldurra. Hogei urte beranduago nere lankide izango zen eta den Olatz Beobideren aita. Iñaki. Andereño Karmele orio-

tarra izaki. Egingo nuke Benito Lertxundi gaztea ere pasatu zela noizbait. Eta Jarrai antzerki taldean ibili zela kontuan hartuta, Ramon Saizarbitoria ere ezzen urruti ibiliko. Nobiyuak. Galdetu behar diot egunen batean... Baina bisitari nagusia, ile zuri, sotana beltz eta musikarekin etortzen zena, Nemesio Etxaniz, Don Nemesio. Artista eta apai-za. Don Nemesio azaldu eta gu kantuan hasia dena bat zen. Beti ekartzen zuen abesti berriren bat. Eta guk jo ta ikasi.

Batuketa eta kenketak egiten ere ikasi genuen. Eta beste zenbait gauza. Nago eragiketa matematikoak ere kantuz egiten genituela eta andereño Karmele eta bere lagunak eta nobiyuak oso metodo modernoak erabiltzen ari zirela jakinean edo oharkabean.

Buen Pastorreko (orain Artzai Ona) ikastola hartara joan ginenak zorte handia izan genuela iruditzen zait. ●



**“Ezinezkoa deritzagu programazio kodifikatu eta zehatzaren arabera ibiltzea: halako egunetan, halako ordutan... baina horrek ez du esan nahi boluntarismo eta espontaneismo hutsetan ibili behar dugunik”.**

Imanol Urbieta



**Bazen behin...**

Mahai-jolasa

**bizitza**

2.200 galdera giza gorputzari buruz

Aztertu "Bazen behin... giza gorputza" izeneko telesail ospetsuko Maisua eta pertsonaiak, eta jabetu giza gorputzaren sekretu guztiez.



Luditoys



39€

ARGIAREN HARPIDEDUNENTZAT

35€

# MIWILUZE

BERRITUA

Froga berriekin gozatu eta barre egiteko

URTEK GORAKOENTZAT +8



Telebistako programa arrakastatsuen edizio berria!



35€

ARGIAREN HARPIDEDUNENTZAT

32€

argia

ESKAERAK



[www.argia.com](http://www.argia.com) | [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com) | ☎ 943 37 15 45



[www.luditoys.com](http://www.luditoys.com) | [info@luditoys.com](mailto:info@luditoys.com) | ☎ 943 36 86 61

abenduak

17

donostia  
miramar  
jauregia

## Euskara biziago ikastetxeetan, hizkuntza-normalizaziorako proiektuen bidez

### egitaraua

9:15 Materialaren banaketa

9:30 Ongi etorria

Kontseiluaren proposamena ikasleak euskalduntzeko

\*Paul Bilbao Sarria Kontseiluko idazkari nagusia

10:45 Atsedena

11:15 Nola landu hizkuntza-normalizaziorako proiektuak ikastetxeetan?

\*Elhuyar aholkularitza

11:30 Esperientzien aurkezpenak (Altsasuko institutua, Zamudioko herri-  
ikastetxea, Orioko Zaragueta herri-ikastetxea, Beasaingo  
Andramendi ikastola eta Tolosako Hirukide ikastetxea)

12:45 Talde-lana

13:30 Bazkaltzeko atsedena

15:30 Konpetentzia komunikatiboen lanketa ikastarlotu guztien bidez

\*Neus San Marti, *Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa*

17:30 Amaiera